

OTXARKOAGA AUZOARI  
BURUZKO AZTERKETA  
SOZIO-URBANISTIKO <sup>ETA</sup>  
PARTE-HARTZAILEA

2019KO ABENDUA







Azterlan hau Createlli eta LurStudiok idatzi dute  
Pauzoa eta Frontage proiektuetarako, BAI+D+i Programaren baitan.



Informe honen idazleak honako hauek izan dira:  
Irati Alonso Erkoreka, arkitekta, Createlli  
Irati Zabalo Carrere, arkitekta, Createlli  
Ane Elizegi Agirre, arkitekta, Createlli  
Jone Belausteguigoitia Garaizar, arkitekta, LUR Studio

<b>LABURPENA</b>	<b>6</b>
<b>SARRERA</b>	<b>11</b>
AURREKARIAK	11
EREMU, XEDE ETA METODOLOGIA	13
<b>ANALISI SOZIO-DEMOGRAFIKOA</b>	<b>15</b>
POPULAZIOAREN EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK	15
POPULAZIOAREN EZAUGARRI SOZIOLOGIKOAK	18
<b>HIRIGINTZA ANALISIA</b>	<b>20</b>
ETXEBIZITZA	20
LOKAL ETA (MIKRO)EKIPAMENDUAK	27
ESPAZIO PUBLIKOA	33
<b>PARTE-HARTZE PROZESUA</b>	<b>41</b>
PARTE-HARTZE PROZESUAREN DESKRIBAPENA	41
PARTE-HARTZE PROZESUAREN ADIERAZLEAK	42
PARTE-HARTZE PROZESUAREN EKARPENAK	45
<b>ONDORIOAK</b>	<b>62</b>



## 1. LABURPENA

Azterlan sozio-urbanistiko hau «Hirien regenerazio osorako proiektu berritzaileak» garatzeko laguntzen baitan gauzatu da. Helburua PCTI Euskadi 2020rako Habitat Urbano-n zerrendatutako aukerei ekarpenak egitea da, BAI+D+i programaren barruan.

Hain zuzen ere, azterlan hau BAI+D+i programan dauden **P[auzoa]** eta **Otxar «Active Frontage»** -en kontestu berean garatu da: guztiek azterlan eremu bera dute eta hainbat ezaugarri dituzte komunean. **P[auzoa]** zein **Otxar «Active Frontage»** -rentzat ezinbestekoa da Otxarkoaga auzoaren egungo behar sozial eta urbanistikoak aztertuko dituen analisi sozio urbanistiko eta partehartzaile batetik abiatzea.

Azterlanaren helburua Otxarkoaga auzo Bilbotarraren hiri ehunduraren ezaugarriak eta dinamikak ezagutzea da. Auzoaren errealitatea aztertzeko aurrekari historikoak, ezaugarri fisikoak, sozialak eta hiritarren pertzepzioa hartu dira kontuan. Hau guztia, ondorengo espazio fisikoei lotua:

- Etxebizitzak
- Lokalak eta (mikro) ekipamenduak
- Espazio publikoa

### Analisi sozio demografikoa

Otxarkoagak 10.064 biztanle ditu 2019an, Bilboko biztanleriaren %2,90-a beraz (347.083). Auzoko populazioaren bilakaera beharrezkoa izan da, nahiz eta azken 5 urteetan nahikoa egonkortu den. Bi sexuen proportzioa ia berdina da.

Gaur egun auzoko populazioaren gehiengoa gaztea dela esango genukeen arren, aipatu beharra dago azken hamarkadetan zahartze tasaren igoera agerikoa izan duela auzoak; 65 urtetik gorako bizilagunen kopurua igotzen joan da gazteena jaisten joan den heinean.


Auzoaren dentsitatea 18.298 bizt./km<sup>2</sup> -koa da 2019an. Beraz Otxarkoaga ez dago Bilboko auzo dentsioen artean, dituen berdegune eta espazio publiko gune zabalak medio.

Otxarkoagako okupazio tasa gaur egun %32,7-an dago, Bilboko batz besteko %48,26-aren oso azpitik, alegia. Aldiz, langabezia tasa %14,5-koa da Otxarkoagan, Bilboko %14,8-aren apur bat azpitik dagoelarik. Azpimarragarria da Otxarkoagan aktibo ez dagoen populazioaren tasa altua: %52,8-koa baita berau.

## ANALISI URBANOA ETA BIZTANLEEN PERTZEPZIOA

### Parte hartze prozesua

Parte hartzaileen kopurua **Otxarkoagan bizi edo lan egiten duten 165 pertsonakoa** izan da. Parte hartzea aurrez-aurre eginiko elkarrizketen bidez edo bakarka beteriko inkesta digitalen bidez gauzatu da. Parte hartzea anitza izan da eta auzoko profil guztietako pertsonak parte hartu dute. Genero eta adinaren aldetik ere oso anitza izan da. Hala ere, esan beharra dago prozesuak ez dituela espero bezainbeste adin txikiko erakarri parte hartzera.



### Etxebizitza

Otxarkoaga auzoa 1959 eta 1961 urteen artean eraiki zen, 18 hilabeteren buruan soilik. Etxebizitza blokeak ingurua urbanizatu aurretik eraiki ziren. Gerora, lurzoruaren maila desberdintasunen ondorioz, ingurua era mailakatu batean urbanizatu behar izan zuten, kontentzio hormak eta eskilarak erabiliz. 110 etxebizitza bloke eraiki ziren, guztira 3,672 bizitoki; horrez gain, lokal komertzialak kokatu zituzten eraikinen behe oinetan eta 3 merkatalgune, eskolak, elizak, ekipamenduak eta zerbitzuak eraiki zituzten auzoan.

Gaur egun Otxarkoaga auzoan dauden 4.797 etxebizitzaren batz besteko adina 50,7 urtekoa da. Hauen gehiengoa babes ofizialekoa da, erregimen orokorrekoa zein berezikoa. Hiri ehundura oso irregularra eta jarraipenik gabekoa da. Etxebizitza unitate bakoitzean batz beste 2,3 pertsona bizi dira, eta etxebizitzaren batz besteko azalera erabilgarria 59,2 m<sup>2</sup>-koa da.

Irisgarritasunari erreparatuz aldiz, etxebizitzaren %54,8-ak bakarrik du igogailua. 2006an Otxarkoaga Auzoko etxebizitzetarako irisgarritasuna hobetzeko Plan Berezia onartu zen. Honen bitartez, Otxarkoagako eraikin aurreexistenteetan igogailuak instalatzeko bete beharreko hirigintza kriterio eta parametroak zehaztu ziren. Plan Bereziak aukera desberdinak proposatzen ditu poligonoko eraikuntza tipologia bakoitzerako: H formako blokeen kasuan barneko patioetan kokatzen du igogailua; L formako edo bloke linealetan, aldiz, perimetroko espaloietan. Hala ere, Plan Berezia duela 10 urte baino gehiago onartua izan bazen ere, eta hainbat eraikinetan moldatze lanak egin badituzte ere, gaur egun eraikin askok igogailurik gabe jarraitzen dute.


Etxebizitza gai garrantzitsu bat da inkestan parte hartu duten pertsonentzat, erantzun gehien jaso dituen atala izan baita. Partehartzaileek aipatutako kontuen artean espazio falta nabarmentzen da, etxebizitzak euren bizimodura eta familia tipologia desberdinei moldatzeko. Zehazki logelen tamaina azpimarratu dute, hain dena urria zeinen armairuentzako tokirik ez dagoen. Inkesta erantzun duten pertsonen artean ere oso aipatua izan da gordailu espazio osagarrien beharra: trastelekuak, edota haurren gurditxoak, gurpildun aulkiak eta bizikletak uzteko guneak, esate baterako.

Nahiz eta partehartzaileen erdiak iritzi duen euren etxebizitza ez dela euren bizimodura eta beharretara moldatzen, hauen erdiak konforme daude duten etxebizitzarekin.

Azpimarratu dituzten gauza positiboen artean etxebizitzek duten argitasuna eta orientazio ona daude. Espazio publiko eta gune berdeetara duten gertutasuna ere oso positibotzat jo dute.

Ezkaratzek duten irisgarritasunari buruz galdeturikoan, aldiz, igogailuaren beharra aipatu dute oraindik euren blokean igogailurik ez duten eraikinetako biztanleek. Ez hori bakarrik, ezkaratzera bertara iristeko dauden zailtasunak ere aipatu dituzte, dauden maila aldaketak, aldapak eta eskailerak direla eta.

Hala eta guztiz ere, inkesta bete duten bizilagunen gehiengoa (%63) ez litzateke beste auzo batera bizitzera joango aukera izango balu.



### **Lokalak eta mikroekipamenduak**

Auzoak zuzkidura sare bat du zuzkidura sozio-kultural, hezkuntzako, erlijio ekipamendu, polizia ekipamendu, dotazio eta osasunarekin loturikoen zuzkidura sare bat hain zuzen ere. Zuzkidura hauek ez daude gune batean multzokatuta baizik eta auzoan zehar sakabanaturik daude, batez ere erdigune-mendebaldean. Gainera, auzoa hiriaren limitean kokatuta dagoenez ekipamenduek eta azokak garrantzi handia dute bizilagunentzat. Hori dela eta, ekipamendu eskaintza handiagoa eskatzen dute, batez ere aisialdi, kirol eta hezkuntzari lotuta. Esan beharra dago auzoan dagoen hezkuntza eskaintzak ez dituela auzoan eskolaratzeko aukera egin nahi duten familien beharrak asetzen: haurrak D hezkuntza eremuan eskolaratu nahi dituzten familia askok alboko Txurdinaga auzora eramaten dituzte haurrak eskolara.

Otxarkoagan bi espazio mota daude ekonomia aktibitateetarako: batetik, Merkatal Zentruak, eta bestetik, etxebizitza eraikinen behe oinean kokaturiko lokal komertzialak.

Etxebizitza eraikinen behe oinean kokatzen diren lokalek etxebizitzek dituzten eraikuntza arazo berdinak pairatzen dituzte. Kasu batzuetan hain da hau larria, zeinetan lokalak tapiatu egin dituzten eraikuntza gabeziak medio erabilezinak direlako. Beste batzuk aldiz, itxita daude eta ez dute erabilerarik duela urte askotatik. Lokalen altuera ez da hiru metrotara iristen eta eta hauetako batzuk oso irisgarritasun mugatua dute bertara iristeko aldapa eta eskilarak medio.

Auzoko merkatal bizitza azken hamarkadetako aktiboena ez den arren, gertutasuneko merkataritzak auzoko oinarrizko beharrak asetzen ditu. Hala ere, aniztasun gehiagoko merkataritzaren falta ikusten da.

Galdetegian parte hartu duten bizilagunen gehiengoak uste du ez dagoela euren eguneroko bizitzarako beharko luketen adina merkataritza eta zerbitzu auzoan. Horregatik, nahiz eta badiren bizilagunak egunerokotasunean auzoko merkatalguneetan erosten dutenak, beste askok erosketetarako Bilboko beste gune batzuetara joatea erabakitzen dute. Arrazoi nagusietan aipatzen dute Otxarkoagako merkatalguneak ez direla nahikoak, aniztasun gutxi dagoela edo ez daudela egoera onean. Ekipamendu, kirol, aisialdi eta kultura eskaintza handiagoa eskatzen dute. Merkatalguneen kasuan, hostalaritza eta denda gehiagoren beharra ikusten dute, eta posta bulegoa, burdindegiak edo mertzeriak bezelako denden beharra.




Metroaren iritsierak eta Otxarkoagak autobusez Txurdinaga, Santutxu eta Bolueta auzoekin duen konexio onak asko laguntzen dute Otxarkoagako biztanleak auzo hauetara erosketak egitera joan daitezen.

Auzoko lokalen erabileraren inguruan galdetu zaienean berriz, bizilagunen erdiak bakarrik elkarbanatuko luke lokal bat beste pertsona batzuekin. Hutsik dauden lokalen inguruan galdeturikoan, berriz %50ak erantzun dute txoko edo trasteleku erabilera emango lieketela.

Era berean, gaur egun erabilerarik gabe dauden lokalen segurtasun eta kontrolaren garrantzia azpimarratu dute. Izan ere, etxebizitza blokeen behe oinean kokaturiko lokal gehienak erabilerarik gabe daude, merkatal aktibitateak ez direlako bideragarriak edo lokalen kondizio txarrak direla eta. Hau dela eta, Otxarkoagan lokal bat irekitzeko asmoa izanez gero, inbertsio handia eskatzen du hau moldatzeak eta beraz, auzoan ekintzaile izan nahi duten pertsonentzat muga bat da.

Hau guztiaren ondorioa zera da, behe oina utzirik egoteak segurtasun falta eta zabarkeria pertzepzioa sortzen duela bizilagunengan.

Azkenik, lokalak nolabait kale eta plazen osagarri izan ahalko balira, partehartzaile gehienak ados daude arkupeak bezelako espazio publiko estaliak izan litezkela.



### **Espazio publikoa**

Otxarkoaga auzoa mendi-magal batean eraiki zuten, orografiara ahal bezain beste egokituz eta planifikazio eskasarekin; ondorioz, hiri-bilbe garbirik gabeko espazio publikoak sortu ziren, lurra eusteko horma askorekin eta eraikinen arteko espazio residual ugariarekin.

Bilbe irregular eta ibilbideen zehazgabetasuna dela eta, oinezkoen mugikortasuna Otxarkoagan oso konplexua da. Ez dago lerrokadura zehatzik eta espaloia zabalera aldakorra da. Gainera, kaleen arteko maila eta kota aldaketek irisgarritasuna erabat mugatu eta zailtzen dute. Bada arrapala mekaniko bat eta baita igogailu bat ere; horiei esker, auzoko puntu zehatz batzuetako irisgarritasuna hobea da.

Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionean, Bilbon Bizi Mailegu Zerbitzuko estazio bat dago kokatuta Kepa Enbeita Plazan (Urretxindorra) eta auzoko kale batzuetan zehar bide gorri tarte batzuk aurki daitezke.

Otxarkoagak garraio publiko bidezko 2 lotura ditu: autobus lineak eta metro geltokia. Hala ere, autoek presentzia handia dute auzoan, izan ere, etxebizitza gehienek ez dute garajerik eta beraz, autoak bai ala bai kaleko aparkalekuetan utzi behar dituzte.

Otxarkoagako biztanleriaren artean bi jarrera nagusitzen dira, batzuei auzoko kaleak eta espazio publikoak atseginak egiten zaizkie eta besteei ez. Bi iritzi kontraesankor hauen arteko polarizazioa oso

esanguratsua da, alde batetik, pozik ez dauden bizilagunen portzentaia altua agerian uzten duelako eta bestetik, eraikinen arteko espazio zabalak eta espazio berdeak baloratzen dituzten bizilagunak ere badaudela adierazten duelako. Espazio berde horiek, auzoan zehar egindako elkarrizketen arabera, auzoko hirigintzako ezaugarri positiboenetakoa dira eta orokorrean, atseginak egiten zaizkien arren, haien arteko lotura faltak, maila aldaketek eta hiri altzari ezak, erabilera zehatzik ez duten espazio residual bilakatu dituzte. Horregatik, parte hartze prozesutik garbi eratorri daiteke kalitatezko espazioak sortzeko beharra dagoela, eserleku, estalki eta abarren bitartez.

Parte hartzaileen ustez, **hobetu beharreko gai nagusiak** mugikortasuna, bereziki auzoan zeharrekoa eta ez hainbeste auzoen artekoa, eta espazio publikoen egokitzapena dira.

**Espazio publikoaren erabilera orduei** dagokionean, bizilagunen erdiak baino gehiagok arratsaldean erabiltzen du espazio publikoa. Proporzioan, ia goizean edo eguerdian baino hiru aldiz gehiago erabiltzen da arratsaldean eta gauean baino bost aldiz gehiago. Gauez ia mugimendurik ez sumatzea seguratasun faltarekin erabat lotuta dago, izan ere, hala erantzundako bizilagunen ustez, argiztapena eta espaloien zabalera hobetu behar dira.

Otxarkoagako **mugikortasunaren** inguruan, galdetutako bizilagunek ez dute uste oinezkoen bideak erosotasun eta segurtasun aldetik hobetzeko aukera dagoenik, orografiak eta ordenik gabeko hiri-bilbeak oinezkoen mugikortasuna mugatzen baitute, irisgarritasun kaskarreko ibilbideak sortuz. Azken urtetan ezarri dituzten igogailu eta arrapalek hobekuntza handia eragin duten arren, auzoan zeharreko nolabaiteko garraio zirkularren beharra sumatzen da, miniautobus batena adibidez.

Datu adierazgarria da galdeketan parte hartu dutenen %60ak uste duela Otxarkoaga auzoko ibilbideak ez direla atseginak. Honen arrazoi nagusiak maila aldaketen ondoriozko irisgarritasun urria eta gauez sumatzen den segurtasun eza dira. Esan beharra dago, genero femeninoa dela azken gai honen inguruan pertzepzio negatiboena duena, izan ere, pertzepzio bera izan duten genero maskulinoaren kopurua bikoitzen du. Hala ere, datu kontraesankorrak dira hauek ere, izan ere, auzoko ibilbideak atseginak egiten zaizkiela diotenenek, auzoko giro onagatik dela argudiatzen dute.

**Bizikletaz mugitzearen** inguruan, ia galdetutakoen erdiak erantzun du Otxarkoaga ez dela auzo egokia eta eroso bizikletaz ibiltzeko. Datu hauek harreman zuzena dute inguruko orografiarekin, oinezko eta bizikletentzako bidegorriak sigi-saga eraikitzea behartzen baitute. Auzoan bertan zaila ikusten dutenez, bidegorrien bidez Otxarkoagak gainerako auzoekin duen lotura hobetzeko beharra nabarmentzen dute.

Azkenik, bizilagunen aburuz, **garraio pribatu eta aparkalekuek** presentzia handia dute espazio publikoan, baina ez zaie desatsegina egiten eraikinen artean dagoen distantziari esker.

## 2. SARRERA

### 2.1 AURREKARIAK

#### **BAI+D+i Programa.**

Azterlan sozio-urbanistiko hau «Hirien regenerazio osorako proiektu berritzaileak» garatzeko laguntzen baitan gauzatu da. Helburua PCTI Euskadi 2020rako Habitat Urbano-n zerrendatutako aukerei ekarpenak egitea da, BAI+D+i programaren barruan.

BAI+D+i (Berriz aztertu Auzoak I+G+b / Repensar los Barrios I+D+i) Eusko Jaurlaitzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzaren Kontseiluaren ekimen bat da, eta honen helburua auzoen hiri regenerazioa eta berrikuntza sustatzea da.

Horrez gain, ekimen hau Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko «Bultzatu 2050: Euskal Hirien Agenda» estrategiaren barnean dago. Agenda honek auzoen hiri berrikuntza integrala, birrakitibazioa eta garapenerako marko bat eskaintzea du jomuga.

Estrategia honen garapenerako ezinbestekoa da hainbat alorretan ikuspegi berritzaile bat izatea: teknologia ikuspuntutik puntako soluzio digitalak, materialak, mugikortasun inteligentea, eta ekonomia zirkularra bezelako kontzeptuak barneratuz; eta antolakuntza sozial aldetik berriz, berrikuntza soziala, parte-hartze eredu berriak, politika inklusiboa eta abarrekoak barneratuz.

BAI+D+i Programa osatzen duten proiektuak honelakoak dira:

Hiri berrikuntzaren ikuspegi integral bat eskeintzen dute, ahal den heinean berrikuntza sozial, ekonomiko eta ingurumenekoa uztartuz.

Bilatzen dituzten helburuen artean, digitalizazioa, auzo ahul edo zaugarrien transformazioa, biztanleriaren zahartzearen faktoreari soluzioak eskeintzea, berdintasuna, kultura, etab. bezelako kontzeptuen integrazioa lantzen dira.

Gaur egun ahuldade egoeran dauden auzoen berehalako beharrei erantzuteko soluzioak proposatuko dituzte, baina baita antzeko ezaugarriak dituzten etorkizuneko auzoetan aplikagarriak direnak ere.

### P[auzoa] eta Otxar «Active Frontage»

Maila zehatzago batera etorriz, azterlan hau Otxarkoaga auzoaren inguruko **P[auzoa]** eta **Otxar «Active Frontage»** proiektuen baitan gauzatzen da, BAI+D+i programaren barruan daudenak, beti ere. Aipatutako bi proiektuek azterlan eremua konpartitzen dute, hau da, Otxarkoaga auzoa, eta ezaugarri komun batzuk dituzte.

#### P[auzoa]: Otxarkoaga poligonoaren hiri berraktibazioa

##### *Hiritik At Koop Elk Txikia-k zuzenduriko proiektua*

Hasierako ideia Otxarkoaga auzoko langile etxebizitzan mehelin itsuak, behe oineko lokalak eta hauen inguruko espazio publikoa aztertzea da. Analisi honetan oinarrituz, ondoren, auzoko eta auzokideen eguneroko bizitza, esparru publiko zein pribatuan, hobetuko luketen zerbitzu eta elementu berriak proposatuko lirateke.

Azterlan hau benetako behar sozial batzuetatik abiatuko da beraz, eta landu beharreko erronka urbanistiko eta arkitektonikoak markatzea izango du helburu.

Bildutako ondorioak eragile desberdinen arteko azterlan parte-hartu baterako jarraibideak izango dira (bizilagunak, arkitektura ikasleak eta adituak). Hauek mikrourbanismo eskuhartzeen bidez, baliabide gutxi behar dituzten soluzio zehatzak emango dituzte.

Prozesua aurreko azterlanean oinarrituz eta ekonomikoki bideragarriak diren proposamen tekniko batzuk eginez amaituko da. Proposamenak, gerora, Otxarkoagaren antzeko egoerak dituzten auzoetan ere aplikagarri izatea interesgarria litzateke.

#### Otxar «Active Frontage» hiri regeneraziorako plangintza integrala

##### *Miriam Varela Alonso-k zuzenduriko proiektua*

Gure auzoak ezinbesteko elementuak dira gure ongizate eta norbanakoaren garapen pertsonalerako. Horregatik, auzoen diseinu aktiborako gidalerro batzuk marraztu behar dira, diseinu eta ingurune eraikiak ere ongizatearen, berdintasunaren, garapen intelektualaren eta bizilagunen garapen sozial eta ekonomikoaren alde egin dezaten eta mugarik jarri ez diezaien.

Izan ere, pertsona baten bizi itxaropenean ez dute ariketa fisiko faltak ala dietak bakarrik eragiten: arkitekturak eta hiri diseinuak ere biztanleen edo bertan bizi direnen ariketa fisikoan, aktibitate mentalean eta euren garapen osasuntsuarengan eragin zuzena dute..

### Otxarkoagaren inguruko azterlan sozio-urbanistiko baten beharra


**P[auzoa]** eta **Otxar «Active Frontage»** proiektuak garatzeko, gaur egun, auzoak dituen benetako hirigintza beharrak aztertzea eta behar sozialen analisi parte-hartu bat egitea beharrezkoak dira, proiektu bakoitzak honako helburuak erdietsi ahal izateko:

- Hiri berrikuntzarako ikuspegi bateratu bat eskaintzea, berrikuntza sozial, ekonomiko eta ingurumen berrikuntza uztartuz.
- Digitalizazioa eta auzo ahulen integrazioa bezelako arloak bultzatzea.
- Epe motzean Otxarkoagan aplikagarriak diren, zein etorkizunean antzeko ezaugarriak dituzten auzoetan inplementatu ahalko liratekeen soluzioak eskeintzea.

## 2.2 EREMU, XEDE ETA METODOLOGIA

### Eremuaren mugatzea

Otxarkoaga auzoa da azterlanaren eremua. Auzoa Bilboko 3. distrituaren gune altuenean dago kokatuta eta 0,55 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Txurdinaga auzoa eta Abril mendiaren magalarekin egiten du muga, eta beraz, bere orografia oso maldatsua da.



### Azterlanaren xedea

Otxarkoagako **hiri ehunduraren ezaugarri eta dinamikak ezagutzea** da azterlan honen **xedea**. Horretarako, Bilboko auzo honen testuinguru historikoa, ezaugarri fisiko eta sozialak eta jendarteak auzoarekiko duen pertzeptzioa hartuko dira kontutan, eta hiru gaietan banatuko da:

- ETXEBIZITZA
- LOKALAK ETA (MIKRO)EKIPAMENDUAK
- ESPAZIO PUBLIKOAK

### Lan metodologia eta informazio iturriak

Azterlan hau gauzatzeko lau lan teknika erabiliko dira informazio jatorriaren arabera: zeharkako iturriak, iturri zuzenak, erakunde ofizialetan argitaratutako informazioa edo ikerketaren eremutik eratorritakoa.

- Aurretiaz Eustat, GeoEuskadi eta Bilboko Udalak eginiko azterlanen eta datu estatistikoaren analisia.
- Eremuaren ikerketa, eraikinen eta espazio publikoaren behaketa eta argazki bidezko dokumentazioa.
- Parte-hartze digitala online galdeketen bidez.

INFORMAZIO ITURRIAK	
1	Bilboko udala
2	Bilbao Zenbakietan, Udaleko Aldizkari Estatistikoa
3	EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea
4	Etxebizitzaren Euskal Beharokia
5	Estudio sobre el barrio de Otxarkoaga, Diagnóstico Preliminar, Cidec, Área Acción Social Ayt. Bilbao
6	Estudio Socio-Demográfico de Otxarkoaga, Jesus M <sup>a</sup> Paredes Gutiérrez y Andrés López Ibarrondo
7	Guía de recursos municipal, Bilboko Udala
8	Bizkaiko Foru Aldundia



### 3. ANALISI SOZIO-DEMOGRAFIKOA

#### 3.1 BIZTANLERIAREN EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

Atal honetan Otxarkoagako biztanleen ezaugarri demografikoen inguruko xehetasunak aipatzen dira, biztanleriaren tamaina, eboluzioa, sexua, adina eta jaioterrria, besteak beste. Horrez gain, auzoaren biztanleria dentsitatea eta xehetasun sozialak ere bildu dira.


##### Biztanleriaren tamaina eta eboluzioa

Otxarkoagak **10.064 biztanle** ditu 2019an, hau da, Bilboko biztanleriaren %2,90 (347.083).

Auzoko biztanleriak gora egin du azken urteetan, azken hiru hamarkadetako balantzean ez bezela, zeinetan 5000 biztanle galdu zituen. Beherakada hau, hala ere, hiriak bere osotasunean bizi izan duen biztanleriaren jatsierarekin bat dator.

Azken 5 urteetan ez da ia biztanleria gorabeherarik izan, eta zenbakia egonkor mantendu da, nahi eta beherakada txiki bat egon 2016 eta 2017 urteen artean (%0,01) eta gero igoera lauso bat 2019ra bitartean (%0,005).

BIZTANLERIAREN TAMAINA ETA EBOLUZIOA						
1988	1991	1996	2003	2010	2016	2019
15593	13660	12869	12242	10932	10115	10064



Iturria: Udal biztanleriaren estatistika auzoka, EUSTAT.

### Populazioa sexuaren arabera

Otxarkoagan bi sexuen proportzioa ia berdina da, hau da, biztanleen %50,9 emakumeak dira eta %49,1 gizonak (2019ko datuak, Bilboko Udala). Bilbo osoa aztergai hartuz berriz, hiriko biztanlerian emakumeen proportzioa handiagoa da, %52,8 baitira emakumeak eta %47,2 gizonak.

<b>BIZTANLERIAREN OSAERA SEXUAREN ARABERA</b>				
	<b>OTXARKOAGA</b>		<b>BILBO</b>	
	<b>biztanle kop.</b>	<b>%</b>	<b>biztanle kop.</b>	<b>%</b>
<b>Gizonak</b>	4935	49,1%	163622	47,2%
<b>Emakumeak</b>	5127	50,9%	183461	52,8%

Iturria: Udal etxebizitza estatistika, EUSTAT.

### Populazioa adinaren arabera

Bilboko gainontzeko auzoetan gertatzen den bezela, Otxarkoagan ere biztanleriaren gehiengoa 40 eta 64 urte artekoa da. Aldiz, Otxarkoagak badu adinean bereizgarri bat, eta zera da: 20 eta 40 urte arteko gazteen tasa Bilboko batz besteko gazteen proportzioa baino handiagoa da. Adin txikikoen pertsonen proportzioa ere txikiagoa da.


65 urtetik gorako pertsonen kasuan berriz, Otxarkoagan proportzioa txikiagoa da Bilbokoarekin alderatuz, auzoko adineko jendea batz bestekoa baino 4 puntu gutxiagora gelditzen delako.

<b>BIZTANLERIAREN EGITURA ADINAREN ARABERA</b>				
	<b>OTXARKOAGA</b>		<b>BILBAO</b>	
<b>0-19 urte</b>	1847	18,4%	55945	16,1%
<b>20-40 urte</b>	2649	26,3%	80217	23,1%
<b>40-64 urte</b>	3583	35,6%	127600	36,8%
<b>&gt; 65 urte</b>	1985	19,7%	83320	24,0%

Iturria: Udal biztanleriaren estatistika auzoka, EUSTAT.

### Gazteria eta zahartze tasa

Gaur egungo auzoko biztanleriaren gehiengoa gaztea dela esan dezakegun arren, azpimarragarria da azkeneko hamarkadetan auzoaren biztanleriak zahartze tasaren igoera nabari bat izan duela. Ondorioz, gazteria proportzioa gutxitzen joan da 65 urtetik gorako biztanleriaren igoeraren alde. Hori dela eta, auzoaren biztanleriak zahartze azkar bat izan du, eta dirudienez, hau biztanleriak ardurapean duen pertsonen tasarekin zuzenki erlazionatuta egon daiteke.



Iturria: Udal biztanleriaren estatistika auzoka, EUSTAT.

## 3.2 BIZTANLERIAREN EZAUGARRI SOZIOLOGIKOAK

### Biztanleriaren dentsitatea

Udal erregistroko datuen arabera Otxarkoagak 10.064 biztanle ditu 2019an, hortaz auzoaren dentsitatea **18.298 bizt./km<sup>2</sup>** -koa da. Ez da Bilboko auzo dentsioenetako bat, bere berdegune zabal, eraikinen konfigurazio eta espazio publikoa dela eta.

### Hiri dentsitatea

Otxarkoagako hiri dentsitatea **8.722 etxeb./km<sup>2</sup>**-koa da, zehazki 4797 etxebizitza baitaude 0,55 km<sup>2</sup>-an, 2016ko Eustateko datuen arabera. Hiri dentsitatea nahiko altua dela esan genezake, altueran eraikitako bloke kopuru handia eta etxebizitzaren tamaina 60 m<sup>2</sup> azpikoa izatearen ondorioz.

### Biztanleria atzerritarra

Otxarkoagako biztanleriaren %8,1 da atzerritarra, Bilboko batz besteko biztanleria baino apur bat txikiagoa dena (%8,5).

Otxarkoagan ordezkari gehien duen herrialdea Maroko da 162 biztanlerekin, Rumaniak 86 ditu, Nigeriak 74, Kolombiak 63, Argeliak 42 eta Venezuelak 37.

BIZTANLERIAREN EGITURA JATORRIAREN ARABERA				
		Biztanleria	Atzerriko biztanleria	Atzerriko biztanleriaren proportzioa %
Otxarkoaga	Gizonak	4.937	435	8,8%
	Emakumeak	5.127	385	7,5%
	<b>Guztira</b>	<b>1.0064</b>	<b>820</b>	<b>8,1%</b>
Bilbo	Gizonak	163.824	14.517	8,9%
	Emakumeak	183.259	14.907	8,1%
	<b>Guztira</b>	<b>347.083</b>	<b>29.424</b>	<b>8,5%</b>

Iturria: Udal biztanleriaren estatistika auzoka, EUSTAT.

### Lan-tasa

Otxarkoagako lan tasa %32,7-koa da, eta Bilboko batz besteko %48,26-aren oso azpitik dago. Nabarmentzeko moduko datu bat da Otxarkoagan aktiboan ez dagoen biztanleria %52,8-koa dela. Langabetuen tasa ostera, hiriko batz bestekoaren oso antzekoa da, %14,5a baita Otxarkoagan eta %14,8a Bilbo guztian.

Edonola ere, alde handia ikus dezakegu auzoko eta hiriko biztanleen diru sarreraren artean, hala: Otxarkoagako batz besteko familia-errenta 22.682€-koa da eta batz besteko errenta pertsonala berriz 11.759€-koa. Bilbo mailara etorrira, familia-errenta 42.805€-koa da eta batz besteko errenta pertsonala berriz 21.245€-koa. Argi dago hortaz, Otxarkoagako biztanleen errenta hirikoa baino nabarmen baxuagoa da. Kontuan hartzekoa da auzoan dagoen Babes Etxebizitza kopuruak harreman zuzena izan dezakeela datu honekin.

Iturria: Populazio aktiboren udal estatistika, 2018.

## 4. HIRIGINTZA ANALISIA

### 4.1 ETXEBIZITZA

#### Bizitegi auzoa eta bertako biztanleekin harremana

Bilbok, hiri industrial garrantzitsua bihurtu zenean, hazkunde handia jasan zuen. Hori dela eta, XX.mendearen erdialdean, milaka pertsona mugitu ziren bertara haien etorkizuna hobetzeko, lan bat aurkitzeko edo bizi baldintzak hobetzeko asmoz.

Ondorioz, 1950. hamarkadan zehar Bizkaiko biztanleriak ia %40ko gorakada izan zuen. Bilboko etxebizitza kopuruak azkar egin zuen gora eta txabolaz osatutako herrixkak sortu ziren Bilbo inguratzen duten mendi-magaletan.

Otxarkoaga auzoa 1959 eta 1961 urteen artean eraiki zuten, “desarrollismo”aren ondorioz eta txabolak desagertarazteko helburuarekin. 18 hilabete soilik behar izan zituzten auzoa altxatzeko eta etxebizitza eraikinak lursaila urbanizatu aurretik eraiki ziren: gerora konponketa zaila duen akatsa burutu zuten horrela.

Guztira 110 etxebizitza eraikin eraiki ziren, hauetatik 8 15 solairuko dorreak zirelarik. 3.672 etxebizitza eraiki ziren guztira, behe solairuetako merkataritza lokalak, 3 merkatal gunek, eskola, eliza, ekipamendu eta zerbitzuez gain.



1.argazkia: 1945 / 2.argazkia: 1965 / 3.argazkia: 1985. Iturria: Geoeuskadi Bisorea.





### Etxebizitza tipologiak


Etxebizitza gehienak dorre edo eraikin lineal moduan eraiki zituzten. Guztira 110 eraikin eraiki ziren, topografiara egokitzeko saiakeran; hauetako 8 dorreak dira. Komunikazio ardatz garrantzitsuenen jatorria kale nagusia zen eta lursailaren kota aldaketak salbatze aldera, auzo osoa mailakatuta urbanizatu behar izan zuten euste horma eta eskaileren bitartez.

Hirigintza diseinua egiterako orduan, hiru faktore hartu ziren kontuan: orientazioa, lursailaren maila aldaketara egokitzea eta etxebizitza eraikinen arteko distantzia maximoa lortzea.

Etxebizitza Institutu Nazionalak (gaztelaniaz INV-k) eta Etxebizitza Ministerioak, etxebizitzaren azalera minimoaren inguruko gidalerroak eman zituzten: ez ziren 55 metro karratu baina gehiagokoak. Hiru logela, komun bakarra, eta egongela-jangela-sukalderako espazio bakarra zuen etxebizitza tipologia gailendu zen. Distribuzio hau garaiko 5 edo 6 senidedun familia ereduari erantzuna emateko erabaki zuten eta hori dela eta, 2 edo 4 logelako etxebizitza gutxi eraiki zituzten. Bestalde, fatxadak ageriko adreiluz eraikitzea erabaki zuten eta inongo sartu irtenik gabe. Altxaerei dagokienean, azpimarragarria da eraikin linealen alboko fatxaden trataera, fatxadaitsuak baitira.




Otxarkoagako etxebizitzaren altxaerak. Bilboko Udal artxiboa.



Etxebizitza eredua. Bilboko Udal artxiboa.

Otxarkoaga proiektuko etxebizitzaren banaketa honakoa izan zen:

OTXARKOAGA PROIEKTUKO ETXEBIZITZAK		
portzentaia	logela kopurua	azalera
%47,9	3 logela	49,88m <sup>2</sup>
%21,4	3 logela	50,38m <sup>2</sup>
%10,7	3 logela	51,47m <sup>2</sup>
%7	3 logela	51,12m <sup>2</sup>
%6,5	4 logela	53,78m <sup>2</sup>
%6,5	2 logela	40,04m <sup>2</sup>



Aztergai den eremuko hainbat etxebizitza eraikinen tipologiak. Iturria: Otxarkoagako Irisgarritasun Plan Berezia, Bilbao.eus.


### ETXEBIZITZA ERAIKINEN TIPOLOGIA

<b>I EREDUA</b>	6 edo 7 solairuko eraikin lineala
<b>L EREDUA</b>	3, 4 edo 6 solairuko L formadun eraikina
<b>H6 EREDUA</b>	H formako 6 solairuko dorrea
<b>H15 EREDUA</b>	H formako 15 solairuko dorrea
<b>T EREDUA</b>	7 solairuko T formadun eraikina
<b>Z EREDUA</b>	3 solairuko tipologia gabeko eraikinak (landetxeak)



## Eraikinen egoera eta adina

1963. urterako, eraikuntzan erabilitako materialen kalitate kaskarraren ondorioz, etxebizitzetan hainbat arazo azaleratu ziren, hezetasunak eta itoginak batez ere. Urbanizazioaren kasuan, espaloi eskasiak eta eraikinentzako euskarri ezak eragin zituen arazoak. Horrenbestez, behe solairuetako hainbat etxebizitza eta lokal ixteko erabakia hartu behar izan zuten.



Otxarkoaga poligonoaren proiektua. Bilboko Udal artxiboa


Arazo guzti hauen ondorioz, 1980an Etxebizitza Publikoaren Sustapenerako Institutua, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udala, presazko eraikuntza arazoak konpontzeko adostasun batera iritsi ziren eta 30,21 milioi euro bideratu zituzten horretarako. Antzeman zituzten arazo nagusienak ondokoak izan ziren:

- Arazoak estalkietan.
- Arazoak ganbera sanitarioetan.
- Arazo larriak egituran.
- Kanpoko aire eta ur filtrazioak arotzeriaren kalitate eskasaren ondorioz.
- Hezetasunei dagokienez, alde batetik, erabilitako eraikuntza sistema kaskarraren ondorioz sortutako hezetasun orokorrak sortu ziren eta bestetik, itxituretan erabilitako isolamendu termiko ezagatik eta kanpo arotzeriaren kalitate eskasagatik kondentsazioz sortutako hezetasunak.

Aipatutako arazoei irtenbide bat eman nahian, hainbat hobekuntza lan egin zituzten: isolamendua gehitu zitzaizkien fatxadei, iragazgaitu egin ziren, aireztapen hodiak jarri ziren kondentsazioak ekiditeko, leihoak aldatu ziren, estalkiak konpondu, ganbera sanitarioetan garbiketa lanak egin ziren, behe oineko forjatuak konpondu eta isolatu ziren, egoera txarrean zeuden hainbat habe eta zutabe indartu ziren, eta azkenik instalakuntza elektrikoa, saneamendu sarea eta argiztapen publikoaren sarea berritu ziren.



Otxarkoagako etxebizitza eraikinak, eraikin lineal eta dorretan. Iturria: BingMaps.



Otxarkoagako etxebizitza eraikinak, eraikin lineal eta dorretan. Iturria: BingMaps.

Berritze lan horien ondoren, etxebizitzaren egoera nabarmen hobetu da. Hala ere, eraikuntza arazo guztiak konpondu ez zirenez, eraikinek gabezia handiak izaten jarraitzen dute, eraginkortasun energetiko baxukoak dira eta eraikuntza hobekuntzak behar dituzte.

Hau dela eta, 2018.urtean Bilboko Udal Etxebizitzak eta Ingurugiro Sailak, Lurralde Antolakuntzak eta Eusko Jaurlaritzak 2022. urterarteko elkarlan akordio bat sinatu zuten, Otxarkoaga auzoaren hiri regenerazio eta eraikinen birgaitzearen inguruan. Proiektuak 7.000.000 euroko inbertsioa aurreikusten du 2022rarte. Eskuhartze garrantzitsuenak honakoak dira: eraginkortasun energetikoaren aldeko bost eraikinen birgaitzea eta irigarritasun unibertsala bermatzea.

Esku-hartzeak, 16 portaletan eta auzoko 3 kaletan (Iruminetan, Txotengan eta Larrakoetxen) banatutako 240 etxebizitzengan izango du eragina.




### Irisgarritasuna hobetzeko Plan Berezia

Otxarkoaga auzoko etxebizitzaren Irisgarritasuna hobetzeko Plan Berezia hirigintza irizpide eta parametroak ezartzen ditu, etxebizitza erabilerako eraikinetan ezarri beharreko igogailuen inguruan. Plana 2006.urtean izan zen behin betikoz onartua.

Plan Berezia aukera desberdinak proposatzen ditu poligonoa osatzen duten tipologia bakoitzerako, igogailua ezartzearen beharrari erantzunez, baina baita espazio libreen eta lorategien ezaugarriak mantenduz ere. Horretarako, H formadun eraikinetan igogailuak barneko patioetan kokatuko dira eta bloke linealen edo L formako eraikinetan perimetroko espaloietan.

Plana duela 10 urte onartu bazen ere, eta harrezkero hainbat komunitatek euren portaletako igogailuak jarri badituzte ere, egun, igogailurik gabeko etxebizitza eraikin ugari dago oraindik.



Otxarkoagako Igogailuen Instalaziorako Plan Berezia. Iturria: Bilbao.eus



## 4.2 LOKALAK ETA (MIKRO)EKIPAMENDUAK

### Ekipamenduak eta zuzkidurak

Auzoak ekipamendu sare bat dauka hainbat zuzkidurez osatutakoa: gizarte eta kultura-ekipamenduak, hezkuntzakoak, osasun alorrekoak, erlijiosoak, eta polizia ekipamenduak. Ekipamendu hauek ez daude gune bakar batean bilduta, baizik eta auzoko puntu desberdinetan sakabanaturik daude, batez ere erdialde-mendebaldean.

Otxarkoagan, ekipamenduek eta merkatuak indar eta garrantzia handia dute biztanleentzat: alde batetik arrazoi historikoak direla eta, auzoak duen nortasun senagatik, eta bestalde hiriaren mugan kokatuta daudelako.



Iturria: Erabilera xehatuak, HAPO Bilbo, Bilboko Udala

<b>OTXARKOAGAKO EKIPAMENDUAK</b>
GIZARTE ETA KULTURA-EKIPAMENDUAK
Otxarkoagako Auzo-Etxea
Otxarkoagako Eguneko Zentrua
ERLIJIO EKIPAMENDUAK
Santos Justo y Pastor Parrokia
HEZKUNTZA EKIPAMENDUAK
Francisco de Goya Haurreskola
HLHI Artatse
Otxarkoaga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua
OSTATU EKIPAMENDUAK
“Bizitegi” Eguneko Zentro eta Egoitza
“Arbolantxa” Hirugarren Adineko Egoitza
POLIZIA EKIPAMENDUA
Otxarkoagako komisaldegia
HEZKUNTZA EKIPAMENDUA
Otxarkoagako Osasun zentrua

Iturria: Bilboko Udala

### Jarduera ekonomikoetarako espazioak

Otxarkoagan bi espazio mota daude jarduera ekonomikoen garapenerako: alde batetik, auzoaren jaiotzarekin batera sortu ziren merkatal guneak daude, eta bestalde etxebizitza eraikinen behe oinean kokaturiko merkataritza lokalak.

### Merkataritza guneak


Auzoaren sorrera garaian, 1959 eta 1961 urteen artean, hiru merkatalgune eraiki ziren, multzoaren A, D eta F zonaldeetan.

A zonaldeko merkatalgunea (Mendebaldeko zonaldea) lau eraikin independentez osaturik zegoen eta berrogei lokal komertzial inguru zituen. Lau eraikin hauetatik bi A gunearen ekialdean kokatu zituzten, hego eta iparraldetik sarrera zutelarik, eta 1400 m<sup>2</sup>-ko oin bakarrean antolatu ziren. Beste bi

eraikinak, handiagoak eta U forman antolatuak, zentroan eta mendebaldean kokatu zituzten, sarrera ekialderuntz zutelarik. Eraikinak eta lonjak maila desberdinetan kokaturiko terrazen eta eskaileren bidez lotzen ziren, orografia maldatsuari moldatu beharrean.

Egitura hormigoi armatuzkoa da; forjatu burdinzeramikoak ditu eta hormigoizko losak ditu sarrerako galerien gainean. Estalkiaren oinarria adreilu tabike txikiez osatuta dago, hauek ondoren rasilla adreilu tableroekin eta AGDAL lamina iragazgaitzez estaliz. Hormak adreilu arruntez eginikoak ziren eta ondoren harrizko akabera bat zuten. Goiko solairuko itxitura ageriko adreilua, barneko tabikea eta hauek osatzen zuten aire ganberaz eginik zegoen. Denden itxiturak berriz zurezko marko batean jarririko arotzeria metaliko tubularrez eginik zeuden. D guneko merkatal gunea, auzoaren iparraldean, hiru eraikin berdinekin konbinatuz diseinatu zuten. Eraikinek hegoaldeko zutena sarrera, behe oina eta bi solairuz osatuta zeuden, eta 51 merkataritza lokal zeuden eraikin bakoitzeko. Lehen oinak sotoak zeuzkan errepidetik gertu, horrela hormarteak gordailuetarako erabiltzen ziren kamioien karga eta deskarga lanetarako.

F zonaldeko merkatalgunea auzoaren Hegoaldean eraiki zen. Bi eraikinek osatu zuten: batek solairu bakarra zuen eta besteak, errepidearekin muga eginik, pasabide estalki batez konektaturiko bi solairu zituen. Iparraldetik zuten sarrera biek ere. Goiko solairuan denda bakanak zeuden eta azpikoan berriz bestelako zerbitzuak. Bi solairuen artean sarrera plaza bat planteatu zuten hornitzera zetozen ibilgailuentzako. Eraikinak oso funtzionalak ziren, eta euren alde ekartzen zuten lurzoruaren maila aldaketa, modu eskalonatu eta eten batean. Eraikinak austeritate handia zuten estetikoki, erabilitako materialak adreilua eta metala zirelarik barnealdean zein kanpoaldean. Momentuko abangoardiako korrontekin bat zetozen proposamenak egin saiatu ziren zituzten muga ekonomikoen barruan.



Otxarkoagako poligonoko D merkatalgunea, "El Chino" izenez ezaguna. Hiriko artxiboa.

### Otxarkoagako azoka

Azoka 1984an eraiki zen auzoaren hegoaldean Otxarkoagako biztanleen auzoko erreferentzia nagusienetako bat bihurtu zen. 2009an berrikuntza lanak egin zituzten bertan, azokako sarrerako hobetu eta legediari arabera moldatzeko asmoz, alde batetik, eta lurzoruaren kota aldaketa dela eta azokaren estalkian sortzen zen eta gaur egun Angela Arregi izena daraman espazio irisgarria urbanizatzeko, bestetik.



Angela Arregi Plaza eta Otxarkoagako azoka (plazapean).

### Merkatalguneak

Otxarkoagako etxebizitza eraikinen azpian dauden lokal komertzialek etxebizitzak dituzten eraikuntza arazo eta patologia berdinak pairatzen dituzte. Alabaina, eraikuntza materialek oso kalitate baxua dute eta hezetasunagatik sortutako arazoak handiak dira. Gauzak horrela, lokalak erabiliezintzat jo eta behin betiko ixtera iritsi dira kasu batzuetan. Beste hainbat kasutan, lokalok ez dute inoiz erabilerarik izan.

Gainera, etxebizitzetan gertatzen den bezela, neurriak oso juxtuak dira: lokalaren altuera librea ez da 3 metrotara iristen askotan, eta irisgarritasunari dagokionez, lokal asko erabat baldintzaturik daude, eskailera edo aldapa handien bitartez ez den beste modurik ez dagoelako bertaratzeko.

Azkenik, hemen ere etxebizitzaren kasuan bezela, lokal gehienak administrazioaren jabegokoak dira eta honek eraginda du auzoko merkatal bizitzaren kudeaketan.

Nolanahi ere, nahiz eta Otxarkoagako gaur egungo merkatal bizitza ez den azken hamarkadetako aktiboena, bada bizilagunen oinarrizko beharrei erantzuna ematen dien merkatal eskaintza, jarraian datorren taulan jasotzen dena. Hala ere, beste mota bateko denden beharra badago, konponketetakoak, burdindegia, etab.

<b>OTXARKOAGAKO MERKATARITZA</b>	
Okindegia	3
Botikak	3
Frutadendak	3
Harategiak	3
Arraindegia	3
Goxoki-dendak	2

Tabernak	15
Liburu-denda	1
Garbitokiak	1
Kiosoak	1
Supermerkatuak	2
Ileapaindegiak	2
Banka bulegoak	1
Iturginak	1
Auto-tailerrak	1
Eraikuntza, Berritze, Barne arkitektura	2
Optika	1
Dentista	1

### **Otxarkoagako jarduera ekonomikoak gaur egun**

Gaur egun Otxarkoagako merkataritza ez dago bere momentu onenean, eta horren adibide argia dugu Lozoño kaleko Merkatalgunea, jarduerarik gabe urteak daramatzana.

2019ko martxoan, ekintza ekonomikoak, hiri regenerazioa eta berritze proiektuak sustatzen hasi zen Bilboko Udala, Otxarkoaga auzo ekologiko eta sozialki iraunkorragoa bilakatzeko asmotan. Horretarako, auzoko elkarrekin elkarlanean darrai Udalak.

“Tu futuro, auzoan” proiektuak 1960an Otxarkoagan merkatal erabilerarako eraiki ziren 1.364 m<sup>2</sup> birgaitu eta moldatzea du helburu. Merkatalgune berria Bilboko Udal Etxebizitzen erakundeak kudeatuko du eta ekintzailetza proiektuak abiatu nahi dituen pertsoneri lagako zaizkie lokalak. Proiektu hauek abiatzeko, baldintza mesedegarriak eskeiniko dizkiete ekintzaileei, besteak beste, denbora tarte jakin batez alokairurik ordaindu behar ez izatea.





Lozoño kalean berritzear dagoen A tipologiako Merkatalgunea

### 4.3 ESPAZIO PUBLIKOA

#### Plaza, parke eta berdeguneak

Otxarkoaga auzoa mendi magal batean izan zen eraikia, lur mugimendu lanak ekiditearren orografiara ahalik eta gehien moldatuz. Beraz, eraikinak lurzorua ren gune lauenetan eraiki ziren. Kontuan hartzen badugu, gainera, auzoa urbanizazio lanak egin aurretik eraiki zela, eta beraz, ia ez zuela aurre plangintzarik izan, erraz ulertu ahal izango dugu gaur egungo espazio publikoaren emaitza: tramarik





gabeko espazio publikoa da Otxarkoagakoa, euste hornez betea eta eraikinen arteko kalitate gabeko espazio soberakinez betea.

Auzoko plaza nagusia Kepa Enbeita Urretxindorra plaza da, eta bere inguruan aurki ditzazkegu auzoko zerbitzu edo ekipamendu esanguratsuenetako batzuk, Haur eta Lehen Hezkuntzako Eskola, Parrokia edota Otxarkoagak metro geltokia, besteak beste. Bertatik distantzia motzera aurki daiteke Ugarte plaza, auzoko espazio publiko zabalenetako bat dena.



Ugarte eta Kepa Enbeita plazak

Auzoak bi parke edo berdegune nagusi ditu, Atxilipu parkea eta Otxarkoagako parkea. Auzoari eskala handiago batetik begiratuz, Otxarkoagako distrituan (Otxarkoaga eta Txurdinaga auzoak biltzen dituena) Santutxu-rekin muga eginez Europa Parkea dugu, auzo barruan ez dagoen arren auzokoentzako erreferentzia puntu bat dena, eta gainera, beste auzoekin loturak egiten dituena.



Otxarkoaga Parkea

### Oinezkoen mugikortasuna eta kalea espazio publiko gisa

Azterlanean, eremuko kaleen tipologiaren sailkapen erraz bat egin da, euren behe oineko diseinuaren eta espazio publikoan duten eraginaren arabera.

Sailkapen hau ONU Habitat-ek erabilitakoa da 1990.urtean, Stockhom-en, Suedian.

<b>A AKTIBOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unitate asko, ate ugari</li> <li>• Funtzio aniztasun handia</li> <li>• Fatxada itsurik ez eta lokal huts gutxi</li> <li>• Erliebe interesgarridun eraikin aurrealdeak</li> <li>• Fatxadaren bereizmen bertikala</li> </ul>	Ez dago
<b>B ATSEGINA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txiki samarrak diren unitateak</li> <li>• Nolabaiteko funtzio aniztasuna</li> <li>• Fatxada itsu eta lokal huts gutxi batzuk</li> <li>• Erliebedun eraikin aurrealdeak</li> <li>• Xehetasun ugari</li> </ul>	Pau Casals
<b>C MISTOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unitate handi eta txikiak</li> <li>• Funtzio aniztasun apala</li> <li>• Fatxada itsu eta lokal huts batzuk</li> <li>• Erliebe gutxidun eraikin aurrealdeak</li> <li>• Xehetasun gutxi</li> </ul>	Zizeruena Makaldi Arbolantxa
<b>D ASPERGARRIA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unitate handiak, ate gutxi</li> <li>• Ez dago ia funtzio aniztasunik</li> <li>• Unitate itsu ugari, alderdi interesgarririk gabe</li> <li>• Xehetasun gabezia ia totala</li> </ul>	Lozoño Arbolantxa Irumineta Fraternidad Aixeona
<b>E EZ AKTIBOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unitate handiak, ate gutxi, kasu batzuetan bakar bat ere ez</li> <li>• Funtzio aniztasunik ez</li> <li>• Unitate itsu eta pasiboak</li> <li>• Fatxada uniformeak, begiratzeko alderdi erakargarririk gabe</li> </ul>	Larrutundu Langaran Txotena



**Azterlanaren eremuko B kale ereduaren irudiak “atsegina”:**



Pau Casals zonaldea Enbeita Plazan - Zonalde dinamikoa ondo funtzionatzen duten saltokiekin, jendetza biltzen duen plazarekin eta metrorako sarrerekin.

**Azterlanaren eremuko C kale ereduaren irudiak “mistoa”:**



Zizeruena Kalea- Merkataritza eraikinak eta osasun zentroak kalea dinamikoa egiten dute, nahiz eta etxebizitza eraikinen behe oinek espazio publikoarekin harreman gutxi izan.



Makaldi Kalea - Behe oinako etxebizitzak aktibo dauden saltokiekin nahastuta.



**Azterlanaren eremuko D kale ereduaren irudiak “aspergarria”:**



Lozoño Kalea - Kale honetara begiratzen duten fatxadak mehelin itsuak dira eta behe oinetan etxebizitzak edo erabilerarik gabeko saltokiak daude. F. Goya Eskolak dinamismo eta aldaketa txiki bat ematen dio kaleari.



Arbolantxa Kalea - Saltoki batzuk ageri dira, beste askok ez dute erabilerarik.



Irumineta Kalea - Etxebizitza erabilera behe oinetan eta kota desberdinetan, baina nahiko atsegina kalearekiko.



Fraternidad Kalea - Espazio publikoarekin harremanik ez duten behe oineko etxebizitzak, eguzkitzapena duen plaza, baina diseinu zein altzari aldetik interesik gabea.



Aixeaona - Espazio publikoarekin harremanik ez duen behe oina, baina saltoki batzuekin.



**Azterlanaren eremuko E kale ereduaren irudiak “ez aktiboa”:**



Larrautundu Kalea - etxebizitzak behe oinean edo behe oin itsuak, ez dago harremanik behe oin eta espazio publikoaren artean.



Langaran Kalea- eraikinen behe oina ez dago ez kalearen ez espaloiairen kota berean eta horrek espazio publikoarekiko muga bat sortzen du. Honez gain, kota aldaketaren ondorioz, kalearen alde bat eustormez osatua dago.



Txotena Kalea - Espaloia ondoko eraikinekiko bi metro tango maila aldaketan dago kokatuta, beraz, ez dago behe oinarekiko inongo harremanik.

Otxarkoaga auzoan zeharreko oinezkoen mugikortasuna konplexua da. Izan ere, bilbea irregularra da eta ibilbideak ez dira argiak, eraikinak lursailaren orografiaren arabera antolatuta izan zirelako. Hortaz, ez dago lerrokadura linealik eta espaloien zabalerak aldakorrek dira. Gainera, mailaketa eta kota aldaketek kaleen arteko irisgarritasuna zailtzen dute, batez ere Txotena eta Lozoño inguruetan. Arrapala mekaniko bat eta igogailu bat daude, auzoaren puntu zehatzetako irisgarritasuna bermatzen dutenak.

### Mugikortasuna bizikletaz

Bilbok bidegorri sare bat, ibilbide ugari eta 25 puntutan banatuta dagoen bizikleten mailegurako "Bilbon Bizi" zerbitzua dauzka. Horietako bat Otxarkoagan dago, Pau Casals etorbidean hain zuzen ere.

8. ibilbideak Otxarkoaga auzoa, Bolueta eta Atxuri zeharkatzen ditu. Otxarkoaga auzoan hasten da, Doctor Ornilla, Jesus Galindez eta Pau Casals etorbideen arteko elkargunean (5. ibilbidearekin elkartzen den gunean). Auzorako garrantzitsuak diren hainbat ekipamendu kokatzen diren azken kale hau zeharkatzen du eta Txurdinaga auzoko Julian Gaiarre Kalean zehar jarraitzen du ibilbideak. Bizikletek gainerako ibilgailuekin partekatzen dute errepidea, ibilgailu desberdinen arteko elkarbitzita esparrua da beraz. Lurrean bertan dago seinaleztatuta eta beti jarraipenik ez duen ibilbidea osatzen du.



Bilbon bizi bizikleta zerbitzua eta Pau Casal etorbideko ibilgailuen elkarbitzita esparrua.



### Mugikortasuna garraio publikoan

Otxarkoagak garraio publiko bidezko 2 lotura ditu: autobus bidezko zerbitzua eta metroa.

Autobus zerbitzuari dagokionean, lau autobus-lineak zeharkatzen dute Otxarkoaga eta besteak beste, Pau Casals, Zizeruena, Txotena, Langaran, J.Gaiarre eta Larratundun dituzte geltokiak.

- 3. autobus lineak Otxarkoaga Bilboko erdigunearekin lotzen du.
- 38. autobus lineak auzoa autobus geltoki nagusiarekin eta zabalgunearekin lotzen ditu.
- 34 eta 43. autobus lineek Otxarkoagak ondoan dituen Txurdinaga eta Santutxu auzoekin lotzen dute.

Aipatzekoa da, autobus linea hauek Otxarkoaga auzoan bertan ibiltzeko ere erabiltzen direla. Batez ere, Pau Casals inguruko zonalde baxuenetatik, Ugarte, Zizeruena edo Arbolantxa bezalako zonalde altuagoetara iristeko.



Metroaren 3.lineak Otxarkoagan geldiuena egiten du Urretxindorra plazan, auzoaren erdigunean. 2017.urteaz geroztik dabil martxan eta lotura hobekuntza handia izan da Otxarkoagarentzat, auzoa Bilboko beste zonalde batzuekin konektatu duelako.

### **Ibilgailu pribatuen mugikortasuna eta aparkalekuak**

Auzoak dohako lau aparkaleku dauzka Arbolantxa, Julian Gaiarre, La Fraternidad eta Senidetasuna kaleetan eta baita aparkaleku estali bat ere Zizeruena kalean. Etxebizitza gehienek garajerik ez dutenez, kaleko aparkalekuek erabilera handia dute eta gehiagoren beharra ere sumatzen da.

## **5. PARTE-HARTZE PROZESUA**

### **5.1 PARTE-HARTZE PROZESUAREN DESKRIBAPENA**

#### **Parte-hartze prozesuaren helburu eta metodologia**

Galdetegi digital bat erabili da galdera funtsezkoenak jasotzeko. Bertan, erantzunak geolokalizatu eta Otxarkoagan bizi diren pertsonen beharrak antzeman eta aztertu dira. Gainera, parte hartu duten pertsonen hautemandako aukera berriak eskaintzen dituzten guneak adierazi dira.

Parte-hartze prozesu zehatza izan da eta kalean bertan sakon landutako elkarrizketak egin dira. Dena dela, prozesu esperimental eta kualitatiboa da, eta kasurik onenean, ondoren auzora eta antzeko errealitateetara aplikatuko litzatekena. Badaezpada ere, prozesuaren azken emaitzen inguruko espektatibarik ez sortzen saiatu gara eta partehartzaileei bidea errazten plataforma digitalaren bidez, auzoan modu aktiboan parte hartzen duten pertsonen esfortzu gehigarriak egin ez zezaten.

#### **Parte-hartze prozesurako erabilitako bideak**

Parte-hartzerako bi bide erabili dira:

Batetik, parte-hartze plataforma bat sortu da [www.repensarotxar.eus](http://www.repensarotxar.eus) webgunean, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere, edozein gailutatik bisitatu daitekeena. Webgune hau 2019ko urrian argitaratu zen eta abendurarte egon zen irekita, beraz, 3 hilabetez parte hartzeko aukera egon da.

Bestetik, eremu-ikerketak bat egin da kalean bertan, sakon landutako elkarrizketekin. Webgunean eskegitako galdetegiko galdera berak egin zaizkie parte hartu duten pertsonari eta gai garrantzitsuenetan sakondu da. Elkarrizketa hauen helburua eragile gehiagorengana eta anitzagoengana iristea izan da, informazio osoago eta adierazgarriago bat lortzeko.


## 5.2 PARTE-HARTZEAREN DATU ADIERAZLEAK

### Parte-hartzaile kopurua

Parte-hartzaile kopuru orokorra **165 pertsonakoa** izan da, eta guztiek auzoan bizi edo lan egiten dute. Parte-hartzea baliabide digitalekin zein aurrez aurre gauzatu da, online bidezko galdeketekin alde batetik eta kalean eginiko banakako elkarrizketen bidez, bestetik.

### Parte-hartzea sexuaren arabera



Emakume gehiagok parte-hartu du (%60) gizonek baino (%39).



### Parte-hartzea adinaren arabera

Adinaren araberako parte-hartzea Gauss kanpaiaren formarekin irudika daiteke eta honek egungo auzoaren errealitatea islatzen du. Izan ere, adin tarte adierazgarriena 19-35 urte eta 36-50 artekoa da eta 51-70 urte bitarteko bizilagunak, 18 urtetik beherakoak eta 70 urtetik gorakoak berriz, gutxiago dira. Burututako parte-hartze digitalean eta elkarrizketetan, adin tarteak hasieran bete beharreko profilarren inguruko galdetegian erantzuten dira. Aipatzekoa da adin txikikoek parte-hartzearen zehaztasun saiakerak egin direla, baina ez dela helburua lortu.






Parte-hartzaileak adinaren arabera.

### Parte-hartzaileak eragile motaren arabera eta auzoan biziako denboraren arabera


Parte-hartze prozesuan eragile mota guztiek parte-hartu badute ere, eragile nagusia Otxarkoaga auzoan bertan jaiotakoena da (%55). Auzoan lan egiten duen jendeak osatzen du hurrengo eragile mota (saltokietan, ostalaritzan, zerbitzuetan...etab.) eta %20a osatzen dute. Kopuru txikiagoan agertzen dira ondoko eragileak: duela 10 urte bertan bizi diren bizilagunak (%11), auzoa sortu zenetik bizi direnak (%8) eta bizilagun berriak (%6).



Eragile mota eta auzoan biziako denbora.

### Parte-hartzaileak kokapenaren arabera


Azterlan sozio-urbanistiko honetan parte-hartutako %100a Otxarkoagan bizi da edo Otxarkoagan egiten du lan. Gehienak Txotena ingurukoak dira (%17a), hurrengo kopuru altuenak berriz Langaran, Arbolantza eta Zizeruena ingurukoak dira (%11) eta %9a Pau Casals ingurukoak da. Lozoño eta Julian Gaiarre zonaldeetakoak da %7a eta Makaldi Etxe eta Larratundukoak %6a. Aixea eta Irumenetan bizi edo lan egiten dutenen kopurua %4ra jeisten da eta hortik behera, Larrakoetxe, Ugarte, Garate eta Garaizarkoak.



Parte-hartzaileak kokapenaren arabera.

### Ardura edo zaintzapean pertsonak dituzten parte-hartzaileak

la parte-hartzaileen erdiak du norbait bere ardurapean (%46ak). Beste pertsona batzuek arduratzen direnen artean, %66a adin txikikoez arduratzen da, %20a adineko pertsonaz eta %14a aniztasun funtzionala duten pertsonaz.




Ardura edo zaintzapean pertsonak dituzten parte-hartzaileak.

### 5.3 PARTE-HARTZEAREN EKARPENAK

Jarraian, galdetegi digitalaren bidez jasotako ekarpenen laburpen bat ageri da. Gai bakoitzako laburpen bat egin da, diagnosiaren inguruko ekarpenen eta Otxarkoaga hobetzeko proposamenen inguruan. Honez gain, galdetutako gaien inguruko emaitzak ageri dira eta kasuan kasu, baita ekarpenen mapak ere.

Burututako galdetegi digitaletik eta elkarrizketetatik ondorioztatu da jarraian ageri den hitz-lainoa, non Otxarkoagaren inguruko beharrak, aukerak, proposamenak eta hobekuntzak ageri diren laburpen grafiko eta bisual eran. Azpimarragarriak dira azaltzen diren hainbat kontzeptu. Alde batetik, auzoaren errotzarekin eta nortasunarekin lotura duten hitzak dira nabarmenak: bizia, giroa, jendea eta auzoa, adibidez eta bestetik, hirigintzarekin zerikusia dutenak: plazak, igogailua, estalpea, kalea eta espazioa.





## ETXEBIZITZA

### Biztanleriak etxebizitzarekiko duen pertzepzio orokorra

Lehenengo eta behin esango dugu etxebizitza gai garrantzitsu bat dela prozesuan parte hartu duten pertsonentzat, izan ere, erantzun gehien jaso dituen galdeketa izan da. Bizilagunek etxebizitzetan dagoen espazio falta nabarmendu dute inkestetan, eta honek etxebizitzak euren bizitzetara eta gaur egungo familia eruedetara egokitzeko dakartzan zailtasunak aipatu dituzte. Logelek dimentsio eskasak dituztela azpimarratu dute, eta beraz ez dagoela armairurik edo antzeko altzaririk sartzeko tokirik. Horrez gain, biltegitarte espazioak eta trastelekuak behar dituztela erantzun dute, haurren aulkiak, gurpildun aulkiak edo bizikletak gordetzeko, besteak beste.

Nahiz eta parte-hartzaileen gehiengoaren aburua den bizi diren etxebizitza ez dela euren beharretara egokitzen, hauen erdia konforme dago duten etxebizitzarekin edo uste du etxebizitza hau nahikoa dela euren bizitza motarako. Etxebizitzari ikusten dizkieten alde positiboaren artean argitasun handia eta orientazio ona nabarmendu dituzte. Parte-hartzaile batzuek espazio publikoekiko eta espazio berdeekiko duten gertutasuna ere goraiatu dituzte.


Ezkaratzetako irisgarritasunarekin inguruan galderak egin zaizkienean kasu, igogailuen beharra dagoela esan dute oraindik euren eraikinean bat ez duten bizilagunek. Are gehiago, kasu batzuetan ezkaratzera bertara iristea ere arazo bat izaten da, bide publikoetan dauden desnibel, aldapa eta eskailerak direla eta.

Dena dela, bada erantzunetan jasotako datu deigarri bat: galdeketa erantzun dituzten pertsonen %63 ez litzateke beste auzo batera aldatuko aukera izanda ere.


### Etxebizitzari buruzko galdeketa digitalaren emaitzak

70m<sup>2</sup> baino txikiagoak diren etxebizitzetan bizi da parte-hartzaileen gehiengoa, kontuan edukiz Otxarkoagako etxebizitza ia guztiek tipologia bera jarraitzen dutela. Hala eta guztiz ere parte-hartzaileen %46aren arabera auzoa ez da edozein familiarentzat egokia, bi arrazoi nagusigatik:


%33ak Otxarkoagan etxebizitza handiagoen beharra dagoela uste du, eta %33ak etxebizitzek igogailuen beharra dutela uste dute. Bigarren mailako proposamen bezela, parte-hartzaileen %15ak uste du auzoarentzat onuragarria litzatekela balkoidun etxebizitzak sortzea eta %14ak irisgarritasuna hobetu ezker auzoak izango lukeen hobekuntza azpimarratu du.




Etxebizitzaren ezaugarrien inguruan erantzuterakoan, parte-hartzaileen %30ak argi natural asko eta berogailua dutela baieztatu du. Halaber, %12ak bakarrik du igogailua edo arropa eskegitzeko espazioa, eta %4ak bakarrik du biltegi edo trasteak gordetzeko espazioren bat.




Hobetu al daitezke etxebizitzak bizilagunen bizimodura egokitzeko? %32ak baietz uste du. Aldiz, %28a konforme dago eta ondo bizi dela dio, eta %27ak bere etxebizitza bere bizimoduarekin bat datorrela uste du. Garrantzitsua da jakitea azken bi talde hauetako gehiengoak baduela igogailua euren eraikinean.





Era berean, interesgarria da emaitzak analizatzea euren zaintzapean beste pertsona batzuk dituzten ala ez aztertuz. Kasu honetan, handia da aldea erantzuten duten pertsonen profilen artean: izan ere, euren ardurapean beste pertsona batzuk dituzten parte-hartzaileen %21ak ez du uste bere etxebizitza bere eguneroko beharretara moldatzen denik, (batz bestekoa %13koa izanik). Datu hau, are eta nabarmenagoa da euren ardurapean dituzten pertsonak adin txikikoak diren kasuetan %23.







Etxebizitzaren erabilera ordutegiei dagokienez, parte-hartzaileen %44ak etxean ordu gutxi igarotzen dituela dio; %29ak, arratsaldeetan bakarrik egoten dela etxean. Datu hau adin tarteen arabera aztertzen badugu berriz, ikusiko dugu nola adineko pertsonak diren etxean denbora gehien egoten direnak. 51 eta 71 urte artekoak dira ostera etxetik kanpo denbora gehien pasatzen dutenak eta hauen %27a lotarako soilik bueltatzen da etxera.




Azter dezagun, adibidez, etxebizitza eta lana konbinatzeko aukera: parte-hartzaileen %33ak dio ez duela etxetik lan egin ahal izateko moduko lan bat, eta aukera hau izango luketen pertsonen artean, gehiagoak dio ez litzatekela bideragarria izango etxebizitzako espazio urria dela eta.




Hain zuzen ere, **espazio falta** gai garrantzitsu bat da etxebizitzari zein eraikinei dagokienean. Bizilagunen %24ari gustatuko litzaioke trastelekuak edukitzea gordailu espazio modura, %17ak haurrentzako gurdia uzteko espazioen falta sumatzen du, eta %12ak bizikletentzako espazioena.



Erreparatu diezaiogun ezkaratzera iristeko egin beharreko bideari. Parte hartu duten bizilagunen %38aren aburuz aldapek gehiegizko malda dute eta %32rentzat eskailera gehiegi daude. Aldiz, etxerako bidea erreza eta atsegina dela uste du biztanleriaren %22 batek. Interesgarria da, ordea, datu hau auzoko zonalde desberdinen arabera aztertzea, jarraian dugun grafikoetan azaltzen den bezela.




Datu hauek xehatuz gero, agerikoa da Pau Casals eta Makaldi guneeetan direla ezkaratzerainoko ibilbideak atsegingarri eta errezen parte-hartzaileentzat. Bestalde, Ugarte, Txotena eta Aixea kontrakoagatik nabarmentzen dira. Dena den, adierazgarria da nola kasu guztietan bizilagunak bat datozen eskailera gehiegi daudela edo bide zehatzen falta somatzen dutela esaterakoan.




Berriz ere euren ardurapean beste pertsona batzuk dituzten perfilak aztertzerakoan, datu aipagarriak aurki ditzakegu. Beste pertsona batzuen karga hartzen duten pertsonen artean ez da ohikoa ibilbideak atseginak eta errezak direla uste izatea. Batez ere, adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonak dira kritikoak: %15ak besterik ez ditu ikusten ibilbide hauek begi onez eta guztiak ados daude aldapa gehiegi daudela baieztatzerakoan.





Aurretik aipatu bezela, **beste auzo batera bizitzera** joateko aukera balute joango al lirateken galdetu zitzaizenean, gehiengoak, ezetz esan zuen (%63).




Gai honen inguruan iritziak oso muturrekoak direnez, erantzun bat hala bestea eman izanaren arrazoietan sakondu nahi izan dugu, eta jarraian aipatzen dira nabarmendu diren ideiak:

Auzoz aldatuko **ez lirateken** pertsonak euren **sustraiak** aipatzen dituzte arrazoi nagusi bezela: bereziki familia, lagun taldeak, elkarteak eta auzoko giroa. Gainera, auzoaren indargune gisa ikusten dituzte auzoko espazio publikoak, etxebizitza eraikinen arteko espazioa eta auzoaren lasaitasuna. Dena den, pertsona hauek gehiengoak (3 kide baino gehiagoko familien parte direnak) etxebizitzetan duten espazio falta eta hauen eraikuntza baldintzak hobetzeko aukerak ere aipatu dituzte, igogailuak instalatzearena, besteak beste.


Komeni da erreparatzea galdeketan parte hartu duten hainbat pertsonaren kasua nahiko berezia dela: nahiz eta Otxarkoagan hazi ziren eta bertan lana egiten duten, beste auzo batzuetara joan behar izan dute bizitzera auzoan bertan ez dutelako etxebizitza bat eskuratzeko aukerarik izan. Hau Otxarkoagan dagoen Udal etxebizitza kopuru altuarekin lotuta egon daiteke.

Bestalde, aukera izango balute beste auzo batera **aldatuko liratekela** adierazi duten bizilagunen arrazoi nagusiak **etxebizitzaren tamaina eta kalitatea** dira. Hauen ostean, auzoaren irisgarritasun falta, merkatalguneen urritasuna eta segurtasuna dira zergati garrantzitsuenak. Azkenik, esanguratsua da auzoz aldatuko lirateken pertsonak etxean denbora gutxi pasatzen duten pertsonak direla, hau da, gehienbat arratsaldean eta gauean.


**Auzoan daramaten denborari** erreparatuz gero, Otxarkoagan denbora gutxi daraman jendea da, ia %40 batean, auzoz aldatuko litzatekena. Zalantzarik gabe esan daiteke beraz, auzoan geratzeko arrazoi nagusia auzo nortasuna eta sustraiak direla.




Adina ere faktore garrantzitsu bat da auzoz aldatzeko pausoa eman edo ez erabakitzerako orduan. Bizilagunak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta interes handiagoa adierazi dute auzoz aldatzeko. 70 urteko pertsonak berriz, auzoan geratzearen alde daude. Ez dago dudarik honek erlazio zuzena duela auzoaren biztanleria jasaten ari den pixkanakako zahartzearekin.




Emakume edo gizonen artean emandako erantzunetan ez da bereizketa nabarmenik ageri, baina aukera izanda, gizoneko kopuru handiagoa aldatuko litzateke auzoz.



Halaber, etxebizitzaren kokapena eta bertara iristeko ibilbideak ez dute ematen faktore erabakiorrak direnik auzoz aldatzea erabakitzeke garaian. Malda handidun guneeetan bizi diren auzotarren kasuan datu hau apur bat handiagoa da (%42koa), baina ez da portzentai bereziki altu bat.





## LOKALAK ETA (MIKRO)EKIPAMENDUAK

### Biztanleriak lokal eta (mikro) ekipamenduekiko duen pertzepzio orokorra

**Ekipamenduen eskaintza handiago** baterako deia egiten dute bizilagunek atal honetan, batez ere aisia, kirola eta hezkuntzarako. Esaterako, auzoan dauden eskolen eskaintza ez da nahikoa D ereduan eskolaratu nahiko luketen Otxarkoagako familientzako, eta ondorioz askok Txurdinaga auzoko eskolara joan behar izaten dute.

Inkestako parte-hartzailen gehiengoaren arabera Otxarkoagan dagoen merkataritza eta eguneroko bizitzarako zerbitzu eskeintza ez da nahikoa. Hori dela eta, nahiz bizilagun batzuk eguneroko bizitzan auzoko lokal eta merkataritzan erosten duten eta auzoko kirol eta kultur ekipamenduak erabiltzen dituzten, beste askok **Bilboko beste auzo batzuetara** jotzea erabakitzen dute. Metroz zein autobusez konexioa ona denez eta Txurdinaga, Santutxu eta Bolueta auzoek merkatal aukera handia dutenez, askok nahiago izaten dute erosketak bertan egitea.

**Ekipamenduak egoera kaskarrean** daude bizilagunen arabera, eta beraz kirol, aisialdi eta kultur ekipamendu eta mantenu gehiago behar direla deritzote. Esaterako, posta bulego, zaharberritze tailer, burdindegi, mertzeria edota dentista bezelako zerbitzuen falta sumatzen dute.

**Lokal hutsen auzia** da auzoko beste kontu garrantzitsu bat. Bizilagunen erdiak soilik elkarbanatuko luke lokala beste pertsona batzuekin, eta hutsik dauden lokalei **txoko edo trasteleku** erabilera emango lieke %50ak. Are gehiago, euren iruzkinetan gaur egun erabilerarik ez duten espazio hauen **segurtasuna eta kontrolaren** garrantzia nabarmentzen dute.


Beharrezkoa da aipatzea etxebizitza eraikinen behe oinean dauden lokalen gehiengoa hutsik dagoela, bertan merkataritza oso bideragarria ez delako edota lokalen egoera kaxkarragatik, materialen kalitateagatik, hezetasun arazo eta dimentsioengatik. Hori dela eta, lokal gehienek inbertsio bat eskatzen dute bertan jarduera bat abiatu aurretik, eta beraz, hau traba bat da auzoan lokal bat ireki nahi duten pertsonentzat.

Egoera guzti honen ondorioa zera da, merkataritza bizitza pobreak **segurtasun eza eta utzikeria** sentrazioa sortzen duela Otxarkoagako kaleetan.

Azkenik ordea, lokal hutsak, kaleak eta plazak hobetzeko **erabileraren bat** bururatzen ote zitzaien galdetzerakoan, interesgarria da bizilagun askok bat egin dutela esanez lokal hutsak plazentzako **gune estali edo arkupe** bezela erabili litezkela.

## Lokal eta (mikro)ekipamenduen inguruko galdeketa digitalaren analisia

Galdeketa erantzun duten 4 pertsonatik 3k uste dute Otxarkoagan dauden **merkataritza eta zerbitzuak ez direla nahikoak** auzoko beharrak asetzeko.




Bizilagunen heren batek egiten ditu eguneroko oinarrizko **erosketak** auzoan. Oro har, gertutasuneko **asistentzia merkataritza** beharra **asetuta** dagoela esan dezakegu beraz, bizilagun gehienek oinarrizko erosketak auzoko dendetan (janari-denda, okindegia, arrandegia, harategia edota farmazian) egiten dituztelako. Lehen mailako oinarrizko beharrez haratago doan saltoki edo zerbitzutarako berriz, bizilagunen %9-a bakarrik geratzen da auzoan. Argia da beraz **ez dagoela nahikoa eskaintza**, eta bizilagunek beste auzo batean erostea beste alternatibarik ez dutela zapata denda edota burdindegi baten beharra badute, esaterako.


Are gehiago, oinarrizko eta erosketak espezializatuagoen artean erlazio eta eragom zuzen bat aurki ditzakegu: Otxarkoagako bizilagunen %9 batek, Txurdinaga, Santutxu edo Bolueta auzoetara erosketak espezializatuak egitera joaten direnean, oinarrizko erosketak ere bertan egiteko aprobetxatzen dute. Honek eragin negatiboa du Otxarkoagako gaur egungo merkataritzaren bizi itxaropenean.

Deigarria da galdetegian parte-hartutako bizilagunen **%3k bakarrik** burutzen dituela bere **ikasketak Otxarkoagan**, kontuan hartuz auzoan hiru eskolarako moduko azpiegitura dagoela. Grafikak adin txikikoen adierazgarri ez izan arren, auzoan eginiko aurrez aurreko elkarrizketetatik ondorioztatu dezakegu gaur egungo **hezkuntza eskeintza ez dela nahikoa** auzoko beharrak asetzeko: A eredia bakarrik eskeintzen da auzoan, eta hori dela eta hainbat familiak euren haurrak beste auzo batean D eredia eskeintzen duten eskola batera eramatea erabakitzen dute, Txurdinagara, adibidez.

Galdeketa parte hartu dutenetako %18k familiartekoak edo lagunak bixitatzen dituzte auzoan, %14a kultur ekintzetan parte hartu edota ikustera etortzen da, eta %11k bakarrik hartzen du parte auzoan kirol eta aisialdi ekintzetan.




Datu hauek auzoak duen **ekipamendu falta** eta gaur egun dauden hobekuntza beharra islatzen dute. Bizilagunen %35ak kirol ekipamenduen falta sumatzen du, %29ak kultur ekipamenduen eta %18k hezkuntza ekipamenduen, hala nola, D ereduko eskolena, liburutegiena, etabar. Osasun ekipamenduen beharra aldiz, **asetuta** dagoela dirudi.




Parte-hartzaileen erdiari baino gehiagori, %55ari, **Otxarkoagan lan egitea** edo bertan saltoki bat irekitzea gustatuko litzaioke. %15ak bakarrik egiten du lan auzoan gaur egun, ordea.



Beste %45ak onartzen du ez lukela denda, kontsulta edo bulego bat irekiko Otxarkoagan eta anitzak dira eman dituzten arrazoiak: lanak aukera hau ematen ez dielako (%33), lokalen ezaugarriak egokiak ez direlako (%24) edo lokalek inbertsio handia behar dutelako (%17).





Bizilagunen erdia prest legoke lokal bat beste pertsona batzuekin batera hartzeko. %30-ak lokalak txoko erabilera balu, %23-ak trastelekuak jartzeko, eta %20 batek garbigune, konponketa tailerrak, edo antzeko erabilerak izango balitu.



Auzoko lokal hutsei kaleak eta plazak hobetze aldera eman dakieken interbidearen inguruan galdetu zitzaientean, %63ak **arkupeen moduko espazio publiko estali** bezela erabili daitezkeela esanez bat egin zuten.

Gertuko ekipamenduen kasuan, galdeketa egin duten bizilagunen erdiak baino gehiagok esan du gertu izan arren, ez dagoela egunero erabiltzen duten ekipamendurik. Honenbestez, argi dago ekipamenduak hobetzeko dagoen beharra.



## ESPAZIO PUBLIKOA

### Biztanleriak espazio publikoarekiko duen pertzepzioa

Otxarkoagako biztanleria erdibituta dago, auzoko kaleak eta espazio publikoa atseginak egiten zaizkien eta ez zaizkiene artean. Muturreko iritzien egoera hau oso esanguratsua da, izan ere, alde batetik, bizilagunen asebetetze eza azaleratzen du, baina aldi berean, eraikinen arteko espazio zabalak eta Otxarkoagan dauden berdeguneak (beste auzo batzuetan topatzen ez direnak) baloratzen dituztela agerian geratzen da. Berdegune hauek, dudarik gabe, hirigintzako elementu positibo bat dira elkarrizketatuen emaitzen arabera eta orokorrean gune atseginak iruditzen zaizkie. Baina berdeguneen arteko lotura faltak, kota aldaketak eta hiri altzarien faltak, erabilerarik gabeko espazio residual bilakatzen ditu. Parte-hartze prozesuan, auzoko espazio publikoa hobetzeko beharra nabarmentzen da, kalitatezko espazioak lortzeko eserlekuak, estalkiak... bezalako elementuen bitartez.

Parte-hartzaileen pertzepzioaren arabera, hobetzeko dauden funtsezko alderdiak, mugikortasuna, zehazki auzo barrukoa eta ez hainbeste auzoen artekoa, eta espazio publikoaren egokitzapena dira.

**Plaza, parke eta berdeguneen erabilera orduei dagoekionean**, galdeketa egin zitzaizen pertsonen erdiak arratsaldean erabiltzen du espazio publikoa batez ere. Goizetan eta eguerdi partean, arratsaldetan erabiltzen duenaren jende erdiak erabiltzen du eta gauez berriz, ia ez da mugimendurik sumatzen. Gertakari hau segurtasun faltaren sententzioarekin erabat lotuta dago eta argiztapen publikoa eta espalioen zabalera hobetzeko beharrerekin.

Otxarkoagako **mugikortasunaren** inguruan, parte-hartzaileek ez dute uste auzoa segurtasun eta oinezkoen erosotasunaren aldetik hobetu behar denik.

Orografia eta ordenik gabeko bilbearen ondorioz, oinezkoen mugikortasuna zailagoa da eta irisgarritasun kaskarreko ibilbideak sortu dira. Azken urtetan ezarritako igogailu eta arrapalak aurreratze garrantzitsua izan diren arren, ez da eraginkorra ezta jasangarria ere, auzoa honelako instalazioz betetzea. Bestalde, nolabaiteko barne garraio zirkular baten beharra sumatzen da, auzoko zonalde isolatuak ekiditeko: minibus moduko bat ezartzea edo Bilbobus lineen ibilbidea handitzea, adibidez.




Azpimarratzekoa da parte-hartzaileen %60arentzat Otxarkoaga barruko ibilbideak ez direla atseginak. Neurri handi batean, orubearen maila aldaketengatik eta auzoko giroan gaez sumatzen den segurtasun ezagatik izan daiteke. Emakumezkoak dira segurtasunaren inguruko ikuspegi negatiboena dutenak, gizonetzkoena bikoizten baitu. Hala ere, hau puntu eztabaidagarrienetakoa da, auzoko ibilbideak erosoak direnentzat auzoko giroa delako puntu positiboenetako bat.

**Bizikleten inguruko mugikortasunari** dagokionean, ia galdetutakoen erdiak uste du Otxarkoaga ez dela bizikletaz eroso ibiltzeko auzo egokia. Datu hauek zuzenean, orografiaren ezaugarriekin dute harremana, sigi-saga eta malda handiarekin antolatzaera behartzen dituelako bidegorri eta oinezkoen bideak. Nabarmentzekoa da beste auzoekin konektatzeko bidegorrien beharra, auzoan bertatik ibiltzeko baino, hiriko beste zonalde batzuetara joateko erabiltzen baitute garraiobide hau.


Azkenik, **ibilgailu pribatuen mugikortasun eta aparkalekuei** buruz, espazio publikoan presentzia handia dutela diote, baina ez zaie desatsegina egiten, eraikinen artean dagoen distantziagatik.

### Galdetegi digitaleko espazio publikoaren inguruko emaitzen analisia


Otxarkoagako biztanleria erdibituta dago auzoko kaleak eta espazio publikoak atseginak iruditzen zizkienen eta ez zaizkienen artean. Hala ere, bizilagunen erdiei ingurua desatsegina egitea portzentaia oso altua da.




Espazio publikoan hobetu daitezkeen alderdien artean, erabilgarritasuna nabarmentzen dute bereziki, jarraian naturaren mantenua eta ondoren, mugikortasuna. Erabilgarritasun eza, batez ere eraikin bloke solteen arteko espazioetan sumatzen dute galdetutakoek, askotan ez baitago kalitate espazialik ezta erabilera zehatzik ere.



**Gertutasuna** da parte-hartzaileen arabera espazio publikoaren alderdi atsegina. Izan ere, berdeguneak sakabanatuta daudenez auzoan zehar, erakargarriak diren gune desberdinak sortzen dira Otxarkoagako espazio publikoan zehar eta sakabanaketaren ondorioz, bizilagun askok dauzkate gertu edo eskura.



**Espazio publikoaren erabilera orduei** dagokionean, bizilagunen erdiak baino gehiagok arratsaldez erabiltzen du espazio publikoa. Proportzioan, ia goizean edo eguerdian baino hiru aldiz gehiago erabiltzen da arratsaldean eta gauean baino bost aldiz gehiago. Beraz, esan dezakegu, espazio publikoaren erabilerak ordutegiarekin harreman zuzena duela.




Parte-hartu duten pertsonen iritziz, ondokoak dira funtziorik eta erabilerarik gabeko espazio libreak. Haien ustez, erabilera ezaren arrazoiak ere adierazi dute. Orokorrean, espazio hauek auzo osoan zehar daude banatuta. Mantenu gehiagoren beharra duten espazioak nabarmentzen dira edo zuzenean erabilerarik ez dutenak hainbat arrazoiengatik edo haiei ere ezezagunak zaizkien arrazoiengatik.




Erabilerarik gabeko espazioen pertzepzio mapa.

Ibilbideei dagokienean, bizilagunen %39ak soilik uste du Otxarkoagako ibilbideak atseginak direla. Datu honen aurrean, jasotako erantzunen arrazoiak eta bizilagunen profilak aztertu dira, ibilbideen aldeko eta kontrako jarrerak ulertzeko:




Orokorrean, 51 eta 70 urte arteko gizonak dira ibilbideekin pozik daudenak izan ere, %50ak erantzun du esanaz, Otxarkoagako ibilbideak atseginak egiten zaizkiola.

Otxarkoagan aldatuko lituzketen alderdien inguruan galdetu zitzaizenean, hiru dira azpimarra daitezkeen alderdiak: **giroa**, 71 urtetik gorakoen iritziz batez ere. 19 eta 35 urte bitarteko gazteen iritziz ordea, giroa da Otxarkoagako alderdi indartsuenetako bat. Beraz, argi ikus daiteke nola alderdi bera gazteentzat positiboa izan daitekeen eta adineko pertsonentzat berriz oztopo bat.




**Segurtasuna** biztanleen iritziz, hobetu beharreko beste puntu bat da. Adierazgarria da emakumeen %29ak azpimarratu duela seguratsun falta, gizonaen ia bikoitzak (%17ak). Gainera, gizonaen %6aren ustez segurtasuna da auzoko alderdi positiboetako bat eta aldiz, ez dago hori erantzun duen emakumerik (%0). Adin tarteari dagokionean, 71 urtetik gorakoak dira segurtasun gabeziaren aurrean kezka gehien adierazten dutenak (%33).




**Irisgarritasuna hobetzearen** beharra bizilagunen %34ak nabarmendu du eta batez ere auzora bizitzera duela gutxi joan diren pertsonak sumatu dute. Esate baterako, Lozoño kaleko bloke baxuenen kasua: kalearen tarte batzuetan ezin dira anbulantzia edo suhiltzaileen larrialdietako ibilgailuak ere sartu.

Airearen kalitateari dagokionez, bizilagunek ez dute garrantzitsutzat jo euren auzoan. Bestalde, aipatzekoa da **“bestelakoak”**, aukeraren barruan, orokorrean 3 konturi egiten zaiola erreferentzia: batetik mugikortasunari, bigarren garbiketarekin loturiko mantenuari eta azkenik merkatal bizitzari.

Alde batetik, mugikortasuna irisgarritasunari oso lotuta dago. Bestetik, mantenua eta espazio publikoaren garbitasuna merkatal bizitzarekin daude lotuta. Har dezagun kontutan Otxarkoagan dauden ibilbideetako asko behe oin tapiatuen albotik doazen espaloietatik egiten direla, eta honek inpaktu handia eta utzikeria adierazten ditu.



“Bestelako” arrazoiak zituztenen analisi sakonago bat eginez eta adinka edo generoka xehatu ezker, ikus daiteke nola gehienbat 51 eta 70 urte arteko pertsonak aukeratu duten erantzun hau. Adin tarte honetan auzoa lasaia izatea baloratzen da, baina bestalde, populazioaren zahartzearen ondorioz, lasaiegia bihurtzen ari dela uste dute, eta beraz hobetu daitekela auzoko pertsona gazteenentzat ere interesgarria izan dadin.



### Ibilbide berrien proposamenak.




Recorrido peatonal




Ibilbide berrien pertzepzio mapa

### Mugikortasuna

Otxarkoaga oinezkoentzako auzo erraz eta seguru bat al da? Bizilagunek oso iritzi zatikatua dute, hara:




Gai honen inguruan ez dago kontsentsurik. Datuetara zehatzago etorri, bikoitza da Otxarkoaga oinezkoentzako auzo ziur eta erraz bat dela uste duten gizonen kopurua (%30), emakumeen aldean (%14). Kontrako iritzia duten emakume kopurua ere ia bikoitza da: emakumeen %27ak irmoki dio Otxarkoaga ez dela oinezkoentzako auzo egoki bat.







Analisi hau adinaren arabera egin ezker, harrigarria da ikustea pertsona helduek mugikortasuna seguru eta errazagotzat ikusten dutela pertsona gazteagoek baino. Sakondu ezker, honen arrazoiaren erroa iritsi gaitzke: adineko pertsonak dira auzoan denbora gehiago daramatenak, honen sorrera eta urteetan izan duen bilakaera ikusi dute, eta beraz, auzoak mugikortasunean egin duen hobekuntza aintzat hartzen dute. Ondorioz, gaur egungo egoera kontestuan jarri gabe baloratzen duten pertsona gazteagoek baino pertzepzio positiboagoa dute.



Bizikletaz mugitzerakoan ere ez da erraza: bizilagunen %45ak uste du Otxarkoaga ez dela bizikletaz mugitzeko auzo erraz bat: zergatia bidegorririk eza eta auzoaren berezko topografiarekin lotua dago. Aldiz, bizilagunen ustez bizikletak aparkatzea ez da konplikatu, erdiak baino gehiagok erreakzio positiboa izan baitu gaiarekiko. Hala eta guztiz ere, 50 urtetik gorako oso pertsona gutxik erantzun diote galdeketaen atal honi, eta beraz pentsa dezakegu bizikleta bizilagun gazteenek erabiltzen dutela batik bat.



Autoen aparkalekuen inguruan aldiz parte-hartzaile gehiagok erantzun dute, eta Otxarkoagan autoentzat aparkaleku asko daudenez, hau gehiegizkoa ote den galdetu zaie: %54ak ezetz uste du, eta %30ak berriz baietz.



## 6. ONDORIOAK

Otxarkoaga auzoari buruzko azterlan sozio-urbanistiko eta parte-hartzaile honetatik honakoa ondorioztatu daiteke.

### ETXEBIZITZA

- Etxebizitza eraikinek eraikuntza gabezia handiak izaten jarraitzen dute gaur egun.
- Etxebizitzen gehiengoa ez da moldatzen bizilagunen bizimoduetara eta familia mota desberdinetara; arrazoi nagusia espazio falta da eta irisgarritasuna bigarrena. Ezkaratz gehienek ez dute igogailurik eta biltegirako espazio behar handia dago.
- Beste pertsona batzuen ardura eta zaintzak egiten dituzten pertsona gehienek ez dute uste bizi diren etxebizitza euren beharretara egokitzen denik, batez ere, adin txikikoen ardura hartzen dutenen kasuan.
- Nolanahi ere, bizilagunek sustrai eta auzo-nortasun sentimendu handia dute, eta beraz, euren %63 ez litzateke beste auzo batera bizitzera joango.
- Auzoz aldatuko liratekenen gehiengoa 19 eta 35 urteko adin tartearen barruan dago.
- Otxarkoagako etxebizitzetara ikusten dizkieten alderdi positiboaren artean orientazioa, bistak, eta etxebizitzetatik gertu espazio berdeak izatea nabarmendu dituzte bizilagunek.
- Trasteleku eta balkoien falta sumatzen dute.
- Parte-hartzaile gehienek uste dute euren etxebizitza ez dela etxetik lan ahal izateko modukoa, tamaina urria duelako eta egokituta ez dagoelako.
- Etxebizitzak arratsaldez eta gauez erabiltzen dira gehienbat, handia da gainera etxean gaua bakarrik pasatzen duten pertsonen proportzioa.
- Badira auzoan irisgarriago eta atseginagotzat ikusten dituzten gunek batzuk, Pau Casals eta Makaldi, adibidez; beste batzuekiko berriz, Ugarte, Txotena eta Aixeonarekiko, hots, kontrako pertzepzioa dute bizilagunek.

### LOKALAK ETA (MIKRO)EKIPAMENDUAK

- Auzoko merkataritza eskaintza ez da nahikoa eta zerbitzu eta denda gehiagoren beharra agerikoa da, oinarri-oinarrizkoak saltokiez gain: mertzeria, burdintegi, albaitaritza, ...
- Hiriko beste gunek batzuetako pertsonentzako erakargarriak izango diren merkataritza interesgarri eta berritzaile baten beharra ikusten da.
- Etxebizitza eraikinen behe oinak erabilera gabe egoteak auzotarrek kalearekiko duten pertzepzioa okertzen du, segurtasun falta eta utzikeria sentsazioak sortuz.
- Lokalek ireki aurretik egokitzapen inbertsio bat behar dute hezetasun eta materialen kalitate txarra dela eta, eta hau muga bat da ekintzaile askorentzat.
- Parte-hartzaileen erdia prest dago lokal bat hartzeko beste pertsona batzuekin batera, eta lehenesten dituzten erabilerak txokoak, trastelekuak, lokalak (hostalaritzakoak edo bulegoak),

eta dendak dira. Espazio publikorantz irekitzen diren espazioen beharra ere ikusten dute, arkupeak edo kirol instalakuntzak, posta bulegoak, etab.

- Ekipamendu berrien beharra dago, batez ere D hezkuntza ereduko eskolena, aisialdiko eta kirol ekipamenduena.
- Martxan dauden ekipamenduen erabilera ordutegia zabaltzeko beharra ikusi dute bizilagunek, Auzo-Etxea eta Osasun Zentruaren kasuetan batez ere, erabilienak diren heinean.
- Gaur egun utzirik dauden eskola-eraikinei, beste erabilera bat ematea proposatzen da eta baita erabilera duten eskolen kasuan ere, eskola-ordutegitik aurrera.

## **ESPAZIO PUBLIKOA**

- Positibotzat jo dute bizilagunek auzoan dagoen espazio berde kopurua.
- Bertara joateko atseginak diren espazioak behar dira eta espazio publikoari orokorrean erabilera ematea.
- Bizilagunak kontziente dira autoen presentzia handia dela auzoan, baina ez zaie arazo bat iruditzen orokorrean.
- Irisgarritasuna zaila da auzoan, lurzoruaren orografia dela eta. Izan ere, aldapa eta eskailera gehiegi daude.
- Oinezko ibilbideak zailak dira edo ez daude moldatuta batez ere bere ardura eta zaintzapean adineko pertsonak dituztenentzat.
- Oinezko ibilbide berriak proposatu dira maila aldaketen arazoari aurre egiteko asmoz.
- Auzo kanpoko konexioak onak dira, garraio bide publikoak: autobusez, metroz zein bizikletaz.
- Barne konexioa eskasa da auzoko gune desberdinen artean, batez ere maila aldaketa handiak daudelako eta kaleak ez daudelako alineatuta. Ibilbide berriak proposatzen dira garraio publiko bidez.
- Argiztapen publikoa eskasa dela sumatu dute bizilagunek, eta honek behe oineko merkatal erabilera ezarekin batera segurtasun gabezia sententzia sortzen du gaur.

## 6.1 AMIA analisia

AMIA analisi-tresna, Otxarkoaga auzoko egoera zehaztasunez aztertzeko erabili da. Matrize baten bidez, egoeraren kanpoko zein barneko ezaugarriak identifikatu eta ordenatu dira, ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertzeko. Analisi honen bitartez, beharrak eta eskuhartzeak lehenetsi daitezke eta gai bakoitzari erantzun egoki bat eman dakioko.

	BARNEKOA	KANPOKOA
NEGATIBOA	<p><b>ahuleziak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraikuntza kalitatea.</li> <li>• Biltegiatarako espazio eza.</li> <li>• Azalera handiagoko etxebizitzaren falta.</li> <li>• Eraikin batzuetan irisgarritasun (igogailu) falta.</li> <li>• Hiri bilbe irregularra.</li> <li>• Orografia eta maila desberdintasunak.</li> <li>• Funtsezko espazioen falta.</li> <li>• Komertzio giro baxua.</li> <li>• Aisialdi eta kultura giro baxua.</li> <li>• Auzo barruko lotura txarrak eta irisgarritasun baxua.</li> <li>• D ereduko hezkuntza ekipamendu falta.</li> <li>• Bertan bizi direnen zahartzeak dakartzan bizi baldintzak.</li> </ul>	<p><b>mehatxuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Txurdinagako hezkuntza ereduaren aniztasuna, nahiz publiko zein pribatuan eta D ereduarekin.</li> <li>• Saltoki eta merkatalgune handiak egotea inguruko auzoetan.</li> <li>• Garajedun etxebizitza babestu handiagoak eraikitzea inguruko auzoetan.</li> <li>• Bilbotarrek Otxarkoagaren estigma izaten jarraitzen dute</li> </ul>
POSITIBOA	<p><b>indarguneak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitzaren orientazio eta argi naturala.</li> <li>• Berdeguneak.</li> <li>• Eraikinen arteko espazio zabalak.</li> <li>• Sustraiak eta auzo nortasuna.</li> <li>• Hiriko beste auzo batzuekin konexioa.</li> <li>• Naturarekiko hurbiltasuna, Avril mendiarekiko esaterako.</li> <li>• Ekipamendu eraikinek dituzten azalera eta espazio handiak.</li> </ul>	<p><b>aukerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Igogailuak instalatzea etxebizitzetako irisgarritasuna hobetzeko.</li> <li>• Biltegiarako espazioak handitzeko aukera.</li> <li>• Itxita dauden lokalei erabilera bat emateko aukera bat izatea dimentsioak handituz, eraikuntza egoera hobetuz edo espazio publikora irekiz.</li> <li>• Eskuhartze txikien bitartez espazio publikoa hobetzea</li> </ul>

